

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a / 601. zenbakia



## ARGAZKI RALLYA

50 bat argazkilari  
lehian domekan

EPAIKETA: HIRU URTEKO KARTZELA ZIGORRA PAULO ELKORORI/4 • FUTBOLA: BERGARA-MUTRIKU /6

AZALA: MAITENA ARANA

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 15**  
ZABALA, Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 16**  
GUALLAR, San Antonio 5 ..... 943 76 11 05
- DOMEKA, 17**  
GUALLAR, San Antonio 5 ..... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 18**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 19**  
MOZOS, Iparragirre 2 ..... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 20**  
CAMACHO, Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74
- EGUENA, 21**  
ZABALA, Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 53 47 20
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emalleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kirolegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak:<br>19:00. | <b>Labegarieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorenzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 08:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30. |
| <b>Santa Marina</b><br>Zapatuak:<br>19:00.<br>Domekak:<br>13:00.               | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>10:00, 11:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:30.<br><b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.<br><b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.<br>Domekak: 12:00.                              |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   |   |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:00.  |   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 11:00.  |   |
| <b>Übera</b><br>Domekak: 10:30.  |   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   |   |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |   |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean.

**OHARRAK**

**1962AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1962an jaiotako enafaria urriaren 30ean, Erreki jatetxean. Izenematea (10 euro aurrez) bertan.

**1951N JAIOTAKOEN AFARIA**  
1951n jaiotako enafaria urriaren 30ean, Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro aurrez) Euskadiko Kutxan.

**1953AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1953an jaiotako enafaria azaroaren 13an, Txarrantxa jatetxean. Aurretik taldearen argazkia aterako dute Frontoian, 21:15ean.

Izenematea (15 euro aurrez) Txarrantxan, Kiñun edo ONCERen kioskoan (Tasio). Izena emateko epea azaroaren 11ra arte izango da zabalik.

**1933KOEN BAZKARIA**  
1933an jaiotako enafaria azaroaren 14an, Zumelaga jatetxean. Aurretik hildakoen aldeko meza izango da Santa Marinan, 13:00etan. Izenematea (6 euro aurrez) Intxorta tabernan.

**1947AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1947an jaiotako enafaria azaroaren 20an, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Izenematea Euskadiko Kutxan, azaroaren 13ra arte.

**JARDUNENAGENDA**

**TXAPLIGU TALDEA**  
Txapligu taldekoek (8-11 urte) eskulanak izango dituzte zapatuan, urriaren 16an. Domekan, berriz, antzararen jolasa egingo dute Arrizuriagan.

**TXISKRILABI TALDEA**  
Txiskrilabikoek zapatuan Udal Euskaltegian elkartuko dira, 16:00etan 12-14 urte bitartekoak eta 18:00etan 14-16 urte artekoak.


**URBANOENORDUTEGIA**

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpiki okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERGARAN**

**Eibar-Reala Agorrosinen, Julian Bernalen alde**

Reala eta Eibar futbol taldeen arteko partidua izan zen 1994ko urriaren 12an, Agorrosinen. Julian Bernal bergararrak, gaitotasun baten eraginez, bi hantak galdu zituen, eta bere lagunak antolatu zuten partidua. 4.000 ikusle inguru izan ziren Agorrosinen. Realak 3-1 irabazi zion Eibari egun hartan.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Erreparu"*



JON IRAEGI

—Erreparo emoten dost jentiai ze edade daukan preguntetiaik.

**ASTEKOPELIKULAK**



**'LA TERMINAL'**

**ZUZENDARIAK:** STEVEN SPEILBERG. **AKTO-REAK:** TOM HANKS, CATHERINE ZETA-JONES.

**HARIA.** Urtetan Pariseko Charles de Gaulle aireportuan bizi den irandar baten istorioan oinarritu da Spielberg, ustez burokrazia kritikatzeko asmoz.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

**PUNTUAZIOA:** ●●●●●

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Astelehena, 11 **11°C**

**MAXIMOA**  
Egubakoitza, 8 **28°C**

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)**  
**2,2 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 6	17 °C	13 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 7	27 °C	13 °C	— l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 8	28 °C	12 °C	— l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 9	25 °C	15 °C	— l/m <sup>2</sup>
Domeka, 10	21 °C	13 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 11	20 °C	11 °C	1,8 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 12	20 °C	12 °C	— l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**'EL ABRAZO PARTIDO'**

**ZUZENDARIA:** DANIEL BURMAN. **AKTO-RAK:** DANIEL HENDLER, ADRIANA AIZENBERG, JORGE D'ELIA.

**HARIA.** Buenos Airesko merkataritza-gune bateko giro itxia jatorriz poloniar-judua izan eta bere nortasunaren bila dabilen gazte baten istorioaren kokalekua da. Filmak Zilarrezko Hartza irabazi zuen Berlinen.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, hilaren 21ean, 20:00etan. Zinekluba.

**PUNTUAZIOA:** ●●●●●

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**OGIZUN**

koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
ONATI  
943 78 24 13

**ATREBENTZIAEZPADA/ Eguneroko bizimoduan euskara erabiltzen duzu?**




**LIERNI LARRAÑAGA**  
33 urte



**JOSE LUIS MARZAN**  
61 urte



**XABIER MUXIKA**  
40 urte



**XABIER LINAZISORO**  
77 urte



**JOSE RAMON AIASTUI**  
36 urte



**MAITE SUINAGA**  
66 urte

Bai, ahal dudan toki guztietan. Senarrarekin ez, ez dakielako, baina ea ikasten diren... Ikasketetan, eskolak euskaraz dira, eta nahiz eta aurrez gaztelaniaz ikasi, moldatzen naiz.

Beti ez, gehienetan gaztelaniaz hitz egiten dut. Etxean euskaraz jarduten dut, baina lagunekin, denekin ez. Umetan, eskolan, ez ziguten utzi euskara erabiltzen eta ohitura galdu genuen.

Bai, baina nahi baino gutxiago. Erraztasun txikia daukat eta epaitegian egiten dudanez, han gaztelaniaz hitz egiten da batik bat. Hala ere, saiatzen naiz gero eta gehiago erabiltzen.

Bai, gaztelaniara oso gutxitan jotzen dut. Erdaldunak direla eta ulertzen ez dutela jakin arren beti egiten diot lehen hitza euskaraz jendeari. Gurea defendatutako behar da.

Bai, nire lana dela eta batzuetan gaztelaniaz egin behar izaten dut eta emaztearekin italieraz. Baina gainontzean euskara erabiltzen dut, etxean alabarekin batez ere.

Umeekin asko erabiltzen dut, baita erosketak egitera noanean ere. Eskolan gaztelaniaz egiten genuenez, euskara egiteko ohitura galdu dugu, eta orain errazera jotzen dugu.

**TXALOAK ETATXISTUAK**



**TXISTUAK APARKALEKU FALTA** Irakurle baten kexa dugu. Herrian diren obren eraginez, aparkaleku kopurua dezente murriztu dela eta hori gutxi balitz Ibargarain autoak aparkatzeko erabiltzen zen gunea itxi egin dutela esan digu. Aspaldian orube handi bat dago erabiltzeko Ibargarain, eta Bidekurutzetara doan aldapan obretako trasteak gordetzeko beste gunea bat egokitu dute, gidarien kalterako. /E.M.

**ETABARRUAN...**

- ASTEKO /4 **Sutea aste bukaeran**  
Sute batek 50 hektarea inguru erre zituen asteburuan Antzuola eta Bergarako mendietan.
- KIROLA /6 **Skate pista kiroldegian**  
Bergarako Udalak Labegaraletako kiroldegian skate pista jartzeko aurrekontua onartu du.
- KULTURA /7 **Txapa Irratia: aurkezpena**  
Txapa Irratiaren programazio berria aurkezteko jaialdia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean.

**ASTEKODATUA**

**500**


**LIBURUXKA BANATU DITUZTE BERGARAN**

*Idatziak. Etxejabeen komunitateetako agiriak* liburuxkaren 500 ale banatu dituzte Bergaran. Etxejabeen komunitateetako agiriak zela egin azaltzen du *Idatziak* bildumako bigarren aleak.

**BESTEKEESANA**

**“**Hamahiru urte nituenetik egon nintzen Realean eta ez zen erraza izan taldea uztea. Han, Donostian, oso ondo tratatu ninduten, lehenbiziko egunetik taldea utzi nuen egunera arte. Realean emandako urteak oso onak izan ziren eta oroitzapen onak besterik ez dauzkut. Hala ere, beharrezkoa nuen aldaketa bat eta ez naiz damutzen Zaragoza etortzeagatik. Oso gustura nago Zaragozan eta gauzak nahiko ondo atera zaizkit orain arte. Zalantzarik gabe, arraroa egingo zait domekan nire taldekideak izan direnen kontra jokatzeko. Ez dakit hasieratik jokaterik izango dudana, baina badaukat gogoia Realaren kontra jokatzeko. Partidu berezia izango da domekakoa”  
**AGUSTIN ARANTZABAL / Zaragoza futbol taldeko jokalaria 'Marca' /04-10-13**

**BERAIEKDIÑO / Iñigo Garitano**



*Gezurrak eta larrua (gogorra)*

**E**z naiz egia esateari balore sakratua ematen dioten horretarikoa. Errealitatea askotan oso gordina izan daiteke eta ezinbestekoa iruditzen zait krudeltasuna leuntzeko egi absolutua nolabait apaintzea. Elkarbizitza atseginagoa izaten laguntzen duelakoan nago.  
Errealitatetik at momentuak bizitzea osasungarria da, entrenigarriek helburu hori dute nagusiki. Nork ez du gogoratzen Roberto Benignik zuzendutako *La vida es bella* filmean aitak semeari bizitzen ari ziren infernuko sufrimendua haur txikiari saihesteko etengabe asmatzen zituen egoera tragikomikoak. Zilegia iruditzen zait. Nork ez du gozatzen Woody Allenek bere komedietan aurkeztu dituen pertsonaiak bizitzen dituzten egoerekin, bizimodu erosoarekin, New Yorkeko txoko erakargarrienak erakusten dizkigun bitartean...  
Baina, horrek egoera eta

jarrera kontzientek eta bilatutakoak badira, larria gezurra arlo guztietan nagusitzea da, eta mundu honetan bizi garela ez ohartzeko. Eta inpresioa daukat hori gertatzen ari dela gure artean. Hemen gezur galantak entzuten dihardugu egun baten bai eta hurrengoan ere. Eta okerrera horrekiko dugun tolerantzia da, inozoak izango bagina bezala botatzen diguten guztia ustez irentsiz.  
Adibide asko ditugu. Azkena, Irakeko gerra pizteko saldu nahi izan ziguten arrazoiak gezur hutsak baino ez zirela konfirmatu izana.  
Inongo lotsarik gabe sarraski horren erantzuleak aitortu dute orain han ez zegoela ez arma arriskutsurik, ez eta Sadam Husseinen eta Al Qaedaen arteko harremanik ere. Eta hori zabaldu denean ez da ezer gertatu.  
Zalantza bakarra daukat: beren gezurrak sinesten bukatu ote dute?

**“Hemen gezur galantak entzuten dihardugu egun baten bai eta hurrengoan ere”**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldeg  
**MAKETAZIOA**  
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



**EZBEHARRA/** Udalaren lursailak garbitzen ari zirela piztu zen sutea, zapatuan

# Antzuola eta Bergarako mendietan 50 hektarea inguru erre ditu suak

EDU MENDIBIL

Zapatutik astelehenera bitartean izandako sute batek 50 hektarea erre zituen Antzuola eta Bergarako mendietan. Gipuzkoako Suhiltzaileetako Mendi Saileko langileek eta boluntarioek jardun zuten sua kontrolatzeko lanetan. Ez zen kalte pertsonalik izan.

Bergarako Udalak kontratatutako enpresa bat garbiketa lanak egiten ziharduela piztu zen sutea zapatuan. Suteak Bergara eta Antzuolako mendietan eragin zituen kalteak, Iturrioste, Astoaga, Larrabaso eta Dantzaleku mendietan hain zuten ere. Hainbat iturrien arabera, 50 hektarea inguru izan dira kaltetutakoak. Zapatutik astelehenera bitartean Gipuzkoako Suhiltzaileetako Mendi Saileko langileek eta hamaibost boluntario inguruk jardun zuten sua itzaltzeko lanetan. Zorionez, ez zen kalte pertsonalik izan. Inguru horretan bost baserri daude (Etxague Azpikoa, Etxague gaineko, Elkorro, Elkorromiño eta Elkorobarrutia), baina ez zuten kalterik jasan.



Suteak Bergara eta Antzuolako mendietan eragin zituen kalteak.

Udalaren lursail batzuk garbitzen zirela, badirudi gaizki itzaltako su batek eragin zuela sutea. Haizeak ere lagundu zuen sutea zabaltzen. Orain dela pare bat aste ere suhiltzaileak etorri behar

izan ziren inguru horretara sua amatatzera. Udalaz gain, Oñatiko Arregi (Juanitosa) eta Ipiñarri dira erretako lursailen jabeak. Baso Elkartek egunotan egingo du kalteen balorazioa.

## Paulo Elkorori hiru urteko kartzela zigorra ezarri diote

E.M.

Paulo Elkorori hiru urteko kartzela zigorra ezarri zioten eguaztenean, beraren aurka Madrileko Auzitegi Nazonalean egindako epaiketan. Hasieran, fiskalak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu zuen Elkororendako, Araba Komandoarekin kolaboratzearen akusaziopean. Hala ere, ezinbesteko kolaborazioa egozten bazioten hasieran, azkenean kolaborazio intentzioa leporatu zioten. Ondorioz, hiru urteko kartzela zigorra ezarri zioten eguaztenean. Jose Luis Elkorok,

Pauloren aitak, positiboki baloratu zuen erabakia, izan ere dagoeneko ia bi urteko zigorra bete baitu bere semeak.

Paulo Elkorori 2003ko urtarri-lean atxilotu zuten Alemanian. Ondoren, Espainiako gobernuak egindako estradizio eskaeraren bitartez, Madrilerara ekarri zuten 2003ko azaroan. Alcalá Meco espetxean egon da preso Paulo Elkorori. Askatasunak deituta, hoguei bat lagun izan ziren eguaztenean Madrilen, epaiketa jarraitzen. Gaur, egubakoitza, euskal presoekin elkarretaratzea izango da San Martin plazan, 20:00etan.



Paulo Elkororen aldeko elkarretaratzea izan zen eguaztenean San Martin plazan.



### San Pedro kalean zirkulazioa etenda

Euskaltel enpresak egiten diharduen lanen eraginez, San Pedro kalean zirkulazioa eten egin zuten eguaztenean. Aurreko egunotan Bidekurutzeta kalean izan dira lanean Euskalteko langileak, kableak sartzeko. Artekaleak itxita jarraitzen duenez, San Pedron lanei ekiteko aprobetxatu du Euskaltekek. Datoren egunotan zabalduko dute kalea berriz zirkulaziora. Hala ere, gidariek San Pedro kaletik Komeniora jo behar dute, eta Bidekurutzetatik gora edo Barrenkalerantz.

### LABUR

#### Sute txiki bat izan zen zapatuan Irizar kalean, 1. zenbakian

Zapatu arratsaldean Irizar kaleko lehen zenbakian izandako sutearen ondorioz, erai-kineko bizilagun guztiak atxeratu zituen etxetik Ertzaintzak. Badirudi bigarren solairuko etxebizitza baten garbigailuan izandako kortozirkuitu batek eragin zuela sutea. Ke jarria nabaria izan zen. Suhiltzaileen kamioi bi iritsi ziren sutearen lekura. Sutea piztu zen etxebizitzan kalte dezente izan zen. Beste etxebizitzetako bizilagunak euren etxetara bueltatu ahal izan ziren.


**IAHA!**  
Antzuolako Hizkuntza Akademia  
zabaldur berria ANTZUOLAN  
**ZATOZ ALEMANA IKASTERA!**  
Irakasle tituluak  
Kalegoi 20  
Tel.: 943 75 21 11 • 649 318 385

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako ehungintza  
Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak  
San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

**Ganbara**  
TABERNA  
Heure erara ibiltzeko!  
Irala z/g. BERGARA  
Tel.: 943 76 55 75

**UREDERRA**  
ITURGINTZA  
Iturgintza Berogintza Aire egokitua Konponketa Salmenta  
Arruriaga 11  
686 943 918

**IRRINTZI**  
kafetegia  
Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26



Liburuxkaren 500 ale banatu dituzte egunotan Bergaran.

**EUSKARA/** Etxejabeen komunitateetako agiriak zela idatzi azaltzen zaigu liburuxkan

## 'Idatziak' bildumaren bigarren alea kaleratu dute

ANTZANE IRIZAR

Debagoieneko Mankomunitateak eta udaletako euskara zerbitzuek **Idatziak** bildumaren bigarren alea kaleratu dute, **Idatziak. Etxejabeen komunitateetako agiriak** izenburupean. 500 ale banatu dituzte atariletako arduradunen artean.

Iaz kaleratu zuten Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek **Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak...** liburuxka. Orduko hartan, eguneroko idatziak euskaraz

zela egin azaltzen zitzaizen herriarrei. Aurten, berriz, etxejabeen komunitateetako agiriak zela egin azaltzen duen liburuxka berria argitaratu dute, Mankomunitatearen laguntzarekin. 500 ale banatu dituzte Bergaran, komunitateetako arduradunen artean. Dena dela, liburuxka eskuratu nahi duten herritarrek udaletxeko Euskara Zerbitzura jo dezakete.

Bilduma honekin, helburua da euskara zabaltzen eta normalizatzen laguntzea; azken baten, euskara esparru guztietara zabal-

tzea eta horretan dihardutenei laguntza eskaintzea.

**AKTAK, ZIURTAGIRIAK, OHARRAK...**

Orain argitara eman duten liburuxkan, etxejabeen komunitateetan egin behar izaten diren dokumentuak euskaraz zela idatzi azaltzen zaigu; besteak beste, bilera deiak eta aktak, ziurtagiriak, errekerimenduak, balantze ekonomikoak, errotuluak eta araudiak zela idatzi azaltzen zaigu. Bukeraren, hiztegi txiki bat ere badago. Liburuxkarekin batera, CD bat banatu dute.



## San Martingo ikasleak, Etxarri-Larraunen

San Martin Agirre ikastetxeko 3. eta 4. mailetako ikasleak Etxarri-Larrauneko Arotz-Enea barnetegian izan ziren iraileko azken astean. Ingurumenarekin lotutako ekintzak egiteko aukera izan zuten, eta, ikasteaz gain, ederto asko ibili ziren Nafarroa aldean.

## Miguel Altunako pabilioi berria azaro erdialderako bukatuko dute


E.M.

Miguel Altuna ikastetxean plastikotara zuzenduta egiten diharduten pabilioi berria azaro erdialderako bukatuko dute. Tailerra datozen bost urteetan erabiliko da, Mayc inguruan ikastetxe berria egin bitartean.

Seminario aldera egiten diharduten pabilioi berria (16,8 m x 12,7 m) ikasleei zuzendutako plastikoko tailerra izango da. Miguel Altunako Iñaki Larrañaga zuzendariaren arabera, lanak azaro erdialdera bukatuko dituzte. Aurrekontua 80.000 euro da, eta pabilioia datozen bost urteotan erabiltzeko egin dute.

**ESKAITZA PARTZIALA**

Bestalde, 21 urtetik gorako adina izan eta gutxienez bi urteko



Plastikoko tailerra jarriko dute egiten diharduten pabilioi berrian.

lan esperientzia dutenei lanbide heziketa ikastea eskaintzen die Miguel Altunak. Bakarkako moduluen bidez egiteko aukera

dago. Izenematea urriaren 20ra arte izango da zabalik. Interesatuak ikastetxeko idazkaritzara jo dezakete argibide eske.

## LABUR

### Windows eta Microsoft Word hasiera ikastaroa, Udaleko Enplegu Sailaren eskutik

Bergarako Udalak, Enplegu Sailaren bitartez, informatika ikastaroa eskaintzen du. Ikastaroa 50 ordukoa da eta Windows eta Microsoft Word hasiera jorratuko dira. Era berean, ikastaroaren hasieran hamar orduko mekanografia arloa eskainiko da.

Ikastaroa azaroaren 2tik abenduaren 3ra bitartean izango da, 15:00etatik 17:00etara. Matrikulak 50 euro balio du. Izenematea urriaren 26ra bitartean izango da zabalik Udaletxeko enplegu sailan, 09:00etatik 13:00etara. Argibide gehiago 943 77 91 24 telefono zenbakian.

### Antzuola eta Bergarako erretiratuen kultur hamabostaldia hasiko da astelehenean

Antzuola eta Bergarako erretiratuek antolatutako kultur hamabostaldia hasiko da astelehenean, urriaren 18an. Hamabostaldia iragarriko duen kartela aurkeztuko dute Bergarako erretiratuen egoitzan, 19:00etan. Era berean, eskulanak, margoak eta artisau lanak jarriko dituzte ikusgai. Martitzenean, hilaren 19an, Ane Bustinduy Prospektiker enpresako zuzendariak biztanleriaren zahartzearen ondorioak izango ditu aztergai Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Bestalde, urriaren 27an San Millan de la Cogollara joateko irteera antolatu dute erretiratuek.

### Gurasoei zuzendutako euskara ikastaroa antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak

*Gehixago eta hobeto* programaren barruan, gurasoei zuzendutako euskara ikastaroa antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Ahozko euskara izango da ikastaroaren oinarria, gurasoei euren hizkuntza-akatsak zuzentzen laguntzeko.

Ordu eta erdiko bost saio izango dira, azaroan hasita. Izenematea martitzenera arte, urriaren 19ra arte izango da zabalik. Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 66 telefono zenbakian.

### Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik

Ekonomi jardueren gaineko zergaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errekaruarekin kobratuko da. Ordainagiria helbideratu gabe dituzten zergadunek ondorengo egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko behar den agiria.

Aipatutako ordainadiria jaso ez duzuenok Udalera jo beharko duzue. Argibideak 943 77 91 64 telefono zenbakian.

FUTBOLA

# Preferente mailako taldeak azken postuan jarraitzen du, oraindik partidurik irabazteke

Igor Gordobil eta Andoni Azkargortaren taldeak Mutriku hartuko du zapatuan, Agorrosinen, 16:30ean

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak ezinbestekoa du bihar, Mutrikuren aurka, garaipena lortzea. Igor Gordobilek zuzentzen duen taldea sailkapeneko azken tokian dago, bi punturekin. Mahoneroek ez dute oraindik partidurik irabazi.

Ligako bosgarren jardunaldi jokatu ondoren, Bergarak ez du oraindik garaipenik lortu eta sailkapeneko azken tokian da, bi punturekin. Inork gutxi espero zuen halako liga hasiera kaskarra. Bihar, Mutrikuren aurka, garaipena lortzea behar beharrezkoa da Igor Gordobilek zuzentzen duen taldearendako.

Zapatuan, Ordizian, 2-1 galdu zuen Bergarak. Ordiziarrek aurreratu ziren markagailuan, 50. minutuan. Ondoren, Ekainek banakoa egin zuen 62. minutuan baina handik gutxira Ordiziak egin zuen 2-1eko. Partidu amaieretan ez dabilta fin Gordobilen eta Azkargortaren mutilak. Estatistikak ere kezkatzeko modukoak dira: Aloña Mendirekin batera, gol gehien jaso duen taldea da Bergara: 12 gol egin dizkiote. Aldi berean, golak egiteko



Preferente mailako taldeak ligako lehen garaipena lortu nahi du bihar bere zaleen aurrean, Agorrosinen.

orduan punteria gutxi azaldu dute bergarrek: jokaturako bost partiduetan bost gol besterik ez dituzte sartu. Anaitasunak baka-

rrik dauka marka eskasagoa, lau golekin. Bergarren moduan, Zarautzek eta Aretxabaletak ere bosna gol egin dituzte.

Bergarak bihar bisitari izan duen Mutriku taldeak sendo dihardu ligan. Azken jardunaldian, etxean, 4-2 irabazi zion Oiar-

tzuni eta sailkapeneko bosgarren tokian daude, 10 punturekin. Sailkapeneko goialdeko postuetan lehia handia dago, lehen zazpi taldeak puntu bakar bateko aldearekin baitaude. Mutrikuarrek bi partidu galdu dituzte orain arte. Etxetik kanpoko azken partiduan, Donostian, 3-0 galdu zuten UPV/EHU taldearen kontra.

## KADETE MAILAN, BERGARA-REALA

Bestalde, ohorezko kadete mailako Bergarako taldeak Realaren aurka neurtuko ditu indarrek zapatuan Ipintzan, eguerdik 12:00etan. Javi Oregi eta Carlos Gorrotxategiren mutilek ez dute partidu erraza izango. Realak talde indartsua dauka-eta. Bergararrek bi partidu berdindu eta beste bi galdu egin dituzte orain arte.

Era berean, zapatuan, senior mailako nesken taldeak Almenen aurka jokatu du Ipintzan, 18:45ean.

## BI PARTIDU DOMEKA GOIZEAN

Domekan, berriz, beste bi partidu jokatu dira Ipintzan: futbol 8an, Bergara eta Antzuolako nesken taldeak izango dira aurrez aurre, 10:00etan. Ondoren, bigarren kadete mailan, Bergarak Zestoa izango du bisitari, 11:45ean hasita.

## Kiroldegian skate pista jartzeko aurrekontua onartu du udalbatzak

E.M.

Udalbatzak Labegaraietan skate pista bat jartzeko gastu proposamena onartu zuen joan den astean. Aurrekontua 44.750 euro da, eta kiroldegia-kanpoaldeko berdegunean kokatuko dute pista.

Udaberri aldera tenis pista ondoren zegoen anfiteatroa bota egin zuten. Hasiera baten, skate pista haren lekuan jartzea pentsatu zuten, baina hainbat auzotarren kezak tarteko, kiroldegiaren kanpoaldeko berdegunean jarriko dute patinean ibiltzeko pista. Udalak oraindik ez du zehaztu lanak noiz hasiko diren, baina urte bukaera alderako skate pista erabiltzeko moduan izango dela aurreratu dute.

Izan ere, skate pista gaztetxo eta gazteen aspaldiko eskaera izan da. Udalak 12-16 urteko gaztetxo beharrak aztertu zituen iaz eta gaztetxoek, besteak beste, patinarekin jolasean aritzeko pista bat aldarrikatu zuten. Iaz buru-



Patinarekin ibiltzeko pista kiroldegiko berdegunean jarriko dute.

tutako ikerketan, gaztetxoek kolektiboak, musika taldeendako lokalak, beraiei zuzendutako kultura eskaintza eta gaztetxoak elkartzeko lokalen beharra azpimarratu zituzten.

Patinean ibiltzen diren gazteek ez dute aspaldi horretarako leku aproposik izan, Matxiategin zegoen pista kendu zutenetik, hain zuzen ere. Pista berriak hutsune hori beteko du.

ESKUBALOIA

## Gazte mailako nesken eta bigarren senior mailako taldearen partiduak aste bukaeran

Bergara KEko gazte mailako nesken taldeak Zarautz taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 16:15ean.

Bestalde, senior mailako bigarren taldeak Arrasate izango du bisitari domekan Labegaraietan, 12:15ean.

IGERIKETA EGOKITUA

## Gutxituei zuzendutako igeriketa eskolak Agorrosingo igerilekuan, egubakoitzetan

Kirol Zerbitzuak igeriketa egokituko ikastaroa eskaintzen du. Aipatutako ikastaroa gutxituei zuzendutakoa da.

Bergaran eskolak egubakoitzetan izango dira, arratsaldean. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Komando-Calaveras. Fac  
10:30: Fac-Egurre. Komando

17:00: A Ze Flaxa-Arrano. KMP  
18:00: Komando-KMP. Pagomendi  
19:00: Mongatxurak-Pagomendi. De Resa.  
20:00: De Resaka-Cosa Nostra. Mongatx.

#### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Niu Tim-Txipiron. Ganbara  
10:30: Canalejas-Ganbara. Txipiron  
16:00: SDTNT-Belengua. A Ze Flaxa

#### DOMEKAN, KANPOAN

18:00: Bayer-Fit automocion. Kalaveras  
17:00: Kalaveras-All Blacks. Pirulotarrak  
18:00: PDS-Pirulotarrak. All Blacks

ELKARRIZKETA

BENITO CANTERO/POL-POL ARGAZKI TALDEKO KIDEA

**“Argazki digitalak izan daitezke agian datorren urteko berrikuntza”**

IRATI AGIRREAZALDEGI

Pol-Pol argazki taldeak antolatuta argazki rallya izango da domekan. Edozein zalek hartu ahal izango du parte, bergararrek zein kanpokoek. Antolakuntzan diharduen Benito Canterok eman digu honen berri.

**Zein helbururekin antolatzen duzue argazki rallya?**

Rallyaren helburua argazkiak atereaz goiza pasatzeaz gain, argazki-zaleak diren lagunekin egotea ere bada, batzuk urtean behin baino ez baititugu ikusten. Proiektzioa ere oso polita izaten da, eta ikasteko balio du, bakoitzak argazkiak komentatzeko aukera izaten du eta kritikak interesgarriak izaten dira.

**Bergarako rallyan jende asko hartzen du parte?**

Begarakoa beste rally batzuekin alderatuta jendetsua izaten da. Gehienetan parte-hartzaileen batez bestekoa 25 lagunekoa izaten da, eta hemen 45 inguru elkaritzen gara, hauetatik 15 Bergarakoak bertakoak.

**Edonork har dezake parte?**

Bai, edozeinek eta nahi duen kamerarekin. Hori bai, argazki digitalekin oraindik ez gara hasi, baina baliteke datorren urteko berrikuntza hori izatea.

**Nolakoa da rallya?**

Goizean goiz argazkien gaiak zozketatzen ditugu eta gero gai horien arabera argazkiak atera behar dituzte zaleek. Goizean argazkiak atera eta gero argazki bobina elkartekooi eman behar digute. Guk errebelatu eta euren bueltatzen dizkiegu sei onenak aukera ditzaten. Ondoren, epaimahaikoek ikusi eta irabazleak zein diren adostu ostean, proiektzioa egiten da aurkeztutako lan guztiekin eta gero sariak banatu.

**Pol-Pol argazki taldeak antolatu du rallya. Zenbat lagun zaudete orain taldean?**

Taldean 25 gara, baina aste-roko lanean sei edo zazpi.



*“Aurkeztutako lanak proiektatu egiten dira, eta jendearen komentarioetatik asko ikasten da”*

**Rallya antolatzeaz gain, zein beste ekintza egiten duzue?**

Lokalean bi laborategi analogiko, laborategi digitala (ordenagailua eta eskanerra), proiektio gela eta egoteko beste gela bat dauzkagu. Astelehenetan gure lanak eraman eta zaleon artean

*“Argazkilaritza digitala indarrean dago, eta laborategi klasikoak ez du zentzu handirik”*

komentatzen ditugu. Argazkiak errebelatzeko aukera ere badago, baina guk ordenagailu bidez egiten dugu gehiena. Gaur egun, laborategi klasiko bat edukitzeak ez dauka zentzu handirik, argazkilaritza digitala baita indarrean dagoena.

KULTURAPILULAK

**Punk-rock musika bihar gauean gaztetxean Antibioticos eta The Capaces taldeen eskutik**

Bihar, urriak 16, zapatua, The Capaces eta Antibioticos taldeen kontzertua izango da 22:30ean gaztetxean. Antibioticos Arnedoko taldeak punk-rock musika egiten du eta kaleratzearen lehen lana aurkeztuko dute. The Capaces Bartzelonako boskoteak *Born to punk* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak hiru euro balio du.

**Kaliforniako Papparoch eta Phoenixko Chronic Future taldeak gaur Jam aretoan**

Papa Roach kaliforniarren hip-hop, hardcore eta groove-funk doinuak entzun ahal izango dira gaur gauean Jam aretoan. *Getting away with Murder* biraren baitan etorriko dira Bergarara. Eurenkin Chronic Future Phoenixko taldeak ere jardungo du. Ateak 20:00etan zabalduko dituzte eta sarrerak 22 euro balio du.

**Udal Musika Bandaren kontzertua izango da domeka eguerdian Udal Pilotalekuan**

Domekan kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak pilotalekuan 12:30ean. Bost pieza joko dituzte: Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Ibarrik Tolosara* euskal martxa; Bizeten *El pescador de perlas* operako obertura; Manzinniren *Pink panter* soinu banda; Caballeroren *Gigantes y cabezudos* zarzuelako zati bat eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek moldatutako *Tirolische melodien*.



**Txapa Irratiaren programazio aurkezpena**

Aste honetan jarriko da abian Txapa Irratiko programazio berria, hogeigarrena, hain zuzen ere. 27 irratsaio entzuteko aukera izango da 97.25 frekuentzian. Musika, kontrainformazioa, kultura alternatiboa... eta halako gaiak landuko dituzte. Programazioa aurkezteko gaur gauean jaia egingo dute gaztetxean. 22:30ean Azkaiter Pelox-en kontzertua izango da. //A.

**GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES**  
BERGARA  
607 349 043

**Grua zerbitzua**  
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Mujika gozotegia**

Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34


**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58



Etxerako  
ederrena,  
*Zanguitun*

**deco-tex**  
**ZANGUITU** alfonbrak

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

Herri lagunak 4. BERGARA  
Tel.: 943 76 08 69

**ZANGUITU** margoak

Irala z/g BERGARA  
Tel.: 943 76 19 54

**IRU** margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 71

- **Parket flotatzailea\***
- **Sintasola\***
- **Moketak\***
- **Paper pintatuak**

\* Salmenta eta etxean ipintzea.





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 37. alia

## IEPA LAGUNOK!

Zer moduz pasatu dozue aste motz hau? Ondo aprobetxatu dozue lau opor egunak? Ni, egixa esan, primeran ibilli naiz, mendira jende asko etorri da eta eurekin berba egingieñez asko entrenitu naiz. Hala be Apatxiko beste ale bat egi-teko denporia be izan dot. Ia zuen gustokua dan!!



## ZERGAITTIK?

Partaide guztien artian gidarixa aukeratuko da. Honek galdera bat pentsatu eta beste jokalarixei adieraziko dotse. Adibidez: "Zergaittik jausten dira hostuak zuhaitzetatik udazkenian?". Gaiñontzeko jokalarixek banan-banan zentzuzko erantzun bat esan biharko dabe. Adibidez: "haizia egitten dabelako". Norbait zer esan ez dakixela gelditzen darian bukatuko da jokua. Ondoren bera izango da jokua gidatuko dabena.



## URREZKO ARAUAK

- Haizia egoten dalako.
- Ez dozu ezer egitten eta!



- Porke haizia dago.
- Si ez dozu ezer egitten!



## IGARKIZUNAK

Ia igarkizun hauek asmatzen dittuzuen! Ezetz igarri!

- Igoko luke arbolarik handiena eta ezin pasa errekarik txikiena.
- Ahorik ez du, hankarik ez du, eta txistuka dihardu eta korrika aurpegian aritzen zaizu joka baiña zuk ezin ikusi iñola.



ERANTZUNAK: iñurria, haizia

## HOROSKOPUA



### capricornio

Ezetz jakin orain dala zenbat urte erai-ki zeben zuk ikasten dozun ikastetxia? Hasi zaittez liburu gehixago irakurtzen.



### libra

Zer dala eta uste dozu bestiak baiño gauza gutxiago egin zeinkiela? Izan zure buruarekin konfidantza haundixagua.



### aquarius

Dagoeneko nekatu zara eskolako lanak egitteaz? Animo! Oraindik ikasturtia hasi beste-rik ez da egin eta!



### leo

Zaindu egizu zure osasuna, ze bestela gaixorik jartzeko arriskua dozu.



### piscis

Ia ikasturte honetarako jarri dozun erronkia gaintzen dozun! Zure esku dago!



### scorpio

Ez zaittez horren alperra izan! Egunian egunekua egitteak mesede egingo dotzu.



### cancer

Nekatuta zarela? Bai zera! Ez dozu ezer egitten eta!



### virgo

Astebukaeran ez dakizula zer egin? Horrenbeste maitte dittuzun lagun horiek asteburu zoragarri bat antolatu dabe.



### sagittario

Parte hartu egizu Apatxiren hurrengo lehiaketan. Iñork baiño irabazteko aukera gehixago dittuzu.



### aries

Zergaittik esaten dittuzu horrenbeste gizur? Pinotxori moduan, sudurra luzatuko jatzu.



### geminis


Zer dala eta horrenbeste negar? Herriko errekar be gaiñezka egingo dabe.



### tauro

Ez zaittez zeurekoia izan, ikasi egizu bestiekin egoten ze bes-tela, bakarrik sentittuko zara.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da San Juango baserri honen izena?

BERGARAROSPETSUAK


Eladio Urdangarin

KOLDO PEREIRA

**L**aureaga dorretxeko oinordekoa, 1860ko urriaren 5ean jaio zen, Bergaran. Anita Irizarrekin ezkondu zen, eta alargun gelditu ondoren, beste alargun batekin: Maria Urkizu Zurbanorekin. Eladio Urdangarin abokatu ezaguna eta Granadako Auzitegiko burua izan zen, bai eta Bilboko ere. Auzitegi horretan eszedentzia hartu zuen kargu handiago batean jarduteko. Bilboko Abokatuen Elkargoan omenaldia egin zioten euren begirunea eta miresmena adierazteko.

Era berean, 1918. urtean Auzitegi Goreneko fiskal buruordea eta Maroko eta kolonietako batzordeko agregatua zen. Erljio-uste sendoko gizona zen, eta bihotz-bihotzean zuen bere jaioterria. Edonon zegoela ere, urtero itzultzen zen Bergarara Aste Santuko prozesioetan parte hartzeko. Oxirondoko Santa Marina parrokiako kabildoak gidari-makila (*gixoia*) gordetzen zion "aste santuko kale birak" gidatzeko. Horixe izan zen Oxirondoko Santa Marinako eliztarrekin izan zuen konpromiso sakratuetako bat. 1930eko ekainaren 12an hil zen.

*Abokatu ezaguna,  
Granadako Auzitegiko  
burua izan zen, bai eta  
Bilboko ere*




ARTIBOIA

Urdangarin kalea

GALDEDEBALDE

- |   |  |   |
|---|--|---|
| <p><b>1.</b><br/>Idatziak bildumaren bigarren alea bereziki zeini zuzenduta dago?</p> <p>A/ Etxejabeei.<br/>B/ Kirolariei.<br/>C/ Politikariei.</p> | <p><b>2.</b><br/>Non jarriko du Udalak gazteei zuzendutako skate pista?</p> <p>A/ Matxiategin.<br/>B/ Labegaraletan.<br/>C/ Agorrosinen.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zenbat irratsaio izango dira Txapa Irratiaren programazio berrian?</p> <p>A/ 14.<br/>B/ 27.<br/>C/ 32.</p> |
|---|--|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**IRANTZU LETE**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Irantzu! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: San Pedro kolean. / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....


Ian tomate txikitua

400 g. 3x1

**1€**

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

**ETXE BERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA  
Firingaluak  
taldekoak  
Arizkunen

Firingaluak taldekoak dira argazkian agertzen direnak. Sokatira proba batean parte hartzeko elkar-tu ziren eta geroztik izen horrekin hainbat ekintza egin zuten, baita kamisetak atera ere. Inoiz futbol partiduren bat jokatu zutela ere jakin dugu, nahiz eta batzuek baloiari ematen ez asmatu. Lagun koadrila askotarikoak izan arren, guztiek osatzen zuten talde bat eta urtean lau aldiz elkartzen ziren: udazkenean, gaztaina erre egunaren bueltan; San Valentín egunean (buztana eta San Blas opila izaten zituzten afaritarako); irteera bat egiten zuten urtean behin; eta batzar orokorra egun osokoa izaten zen, Inozente egunean Lapurdi baserrian.

Erretratua Nafarroara egindako irteerakoa da. Arizkunen atera zuten, eta bidean ahari batekin komeriak izan zituztela iritsi da gure belarrietara.

Hona hemen erretratuan agertzen direnak. Goian, ezkerretik eskumara: Pello Izagirre, Jon Agirreazaldegia, Roberto Basauri Lapurdi, Juan Mari Sarasua Jefia, Patxi Montiel, Jesus Mari Berraondo Plinio eta Jorge Iturricastillo.

Behoko ilaran: Jose Mari Alberdi, Goio Sarasua, Jose Agustin Beretxinaga, Ramon Ugalde, Iñaki Berraondo, Esteban Sarasketa eta Jose Antonio Egizabal Sagastitxu.

Argazkia: Jon Agirreazaldegia



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



GAZTELU  
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ARDATZA

Brikolajea

- |                    |                         |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini  |
| Horma-armairuak    | Era guztietako moldurak |
| Sarrailak          | Apalak                  |
| Heldulekuak        | Kaxoiak                 |

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

TELEIXA  
BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

EDEL  
TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



ARRI

Industri hornidura  
Latigilloak

Telleria 2  
BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

KONDE  
PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko urriaren 15a / 218. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


## Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu berri du udalbatzarrak

AINTZANE IRIZAR

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Antzuolako Udalarendako egin duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu egin du udalbatzarrak, urriko osoko bilkuran. Parte hartu zuten zinegotzi guztiek aldeko botoa eman zioten proposamenari.

Orain dela urte eta erdi, 2003ko apirilean, hain zuzen ere, sartu zen Antzuolako Udala UEMAn, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean. Mankomunitate horretan sartzen diren udalei, euskararen erabilera normalizatzeko plana egiten die UEMAK. Antzuolaren kasuan ere horixe egin dute, eta urriko osoko bilkuran onartu zuen Udalak plana.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Udalerako egiten da; horrela, helburua lortzeko hiru ildo nagusi zehaztu dira: herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza bezala erabiltzea bermatzea; euskara beste administrazioekiko harremanetarako hizkuntza izatea bermatzea eta administrazio barneko lan hizkuntza euskara izatea bermatzea.



Udalan euskararen erabilera bultzatzea da planaren helburua.

Hiru helburu horiek betetzeko hainbat irizpide zehazten ditu planak; hala nola, herrian zabaldu beharreko agiriak euskaraz argitaratzea, langileak etengabe prestatzea euskarari dagokionez, kontratatutako enpresek euska-

razko zerbitzua emango dutela ziurtatzea, beste erakundeekiko harremanetan euskarazko dokumentazioa erabiltzea eta hirigintzako baimenak euskaraz ematea, besteak beste.

Oraingo hau, baina, ez da Uda-

lak abian jartzen duen lehenengo plana. 1989an Euskararen Udala Ordenantza onartu zuten. Geroago, 1995ean, hain zuzen ere, Bergarako Udalarekin batera, AEBE normalizazio plana garatu zuten, hiru urtean zehar.

## HERRITARREN HITZA / Mikel Larrea • Udal langilea

### Une historikoak

Une historikoak bizi ditugu Euskal Herriaren etorkizunerako". Gure politikoen ahotik etengabe entzuten dugun esaldia da. Baina egia esanda, asko kostatzen zaigu gertaera sozio-politikoak gure herriaren etorkizunean duten inplikazioa nabaritzea.

Agian, irailaren 11ko edo martxoaren 11ko atentatuek, edota Irakeko gerrak, munduaren norabidea aldatu dute, baina gutariko askoren bizimodu leku txikiko hautestontzi batek blindatuta edo babestuta jarraitzen du, non bakarrik eguneroko arazo txikiak duten

lekua: hilaren amaierara heltzeak, osasun arazoek, bikote harremanek, familia arazoek edo baita Errealaren egoerak ere.

Ez dago bestelako buruhaustetarako lekuri; gure mundu txikia arazo pertsonalez inguratuta dago, eta honek gizartean eragina duten benetako arazo pertzepzioa eragozten du.

Dena den, gure arazo txikien zergatiak aztertze-



**"Proposamenak ulertu eta iritzia emateko gaitasuna izan behar dugu"**

Era horretan, arazoak konpontzeko bidean partehartzaile aktiboak izan gaitzeko,

beharrezko adimen gaitasuna eskuratu behar dugu, eta kontzienteak izan behar gara arazo horietako askoren jatorria gizartearen osasun politikoan dagoela.

Estutzen gaituen kristalezko hautestontzia puskatu egin behar dugu, eta eguneroko arazo gainetik zer dagoen ikusi.

Benetako gizarte demokratikoa lortzea nahi baldin badugu, horretarako konpromisoa hartu behar dugu. Alderdi politikoak, gobernuak edota lehendakariak aurkeztutako proposamen ezberdinak ulertu eta iritzia emateko gaitasun pertsonala izan beharko genuke, aurkezten duenaren sinpatiak edo antipatiak guregan izan dezakeen eragina alde batera utzita.

Horrela bakarrik sinistu eta ulertu ditzakegu, benetan une edo garai historikoak bizi ditugula Euskal Herriaren etorkizunerako.

## LABUR

### Ping-pong txapelketa Gaztegunean

Gaztegunean ping-pong mahaia jarri berri dute, eta txapelketa antolatu nahi dute. Asteburu honetan egongo da izena emateko aukera. Bestalde, oraingo zapaturako iragarrita zegoen hanka-paloen ikastaroa atzeratu egin dute la adierazi digute Gazteguneko arduradunek.

### Haurtzaindegirako izena emateko epea luzatu dute

Aurreko asteko egubakoitzean, hilak 8, bukatu zen haurtzaindegirako izena emateko epea. Ume gutxi aurrematrikulatu dira, eta oraindik bada- go lekua. Hori ikusita, Udaleko arduradunek erabaki dute aurrematrikulazioko epea luzatzea. Udaletxean duzue izena emateko aukera.

### 'Idatziak' liburuxka eskuragarri dago Antzuolan ere

*Idatziak. Etxejabeen komunitateetako agiriak* liburuxka kaleratu berri dute Mankomunitateak eta udalako euskara zerbitzuek. Antzuolan, atari bakoitzeko ale bat banatuko dute; dena dela, liburuxka gehiago nahi izanez gero, udaletxeko bulegoetara jo dezakezue bila.

### Erretiratuen irteerarako izena emateko aukera

Gaur, egubakoitza, erretiratuen irteerarako izena emateko azkeneko eguna duzue. 18:00etatik 20:30era egongo dira txartelak salgai, erretiratuen elkartean, 24 euroren truke. Hilaren 21ean, eguna, Bilbora egingo dute irteera; ondoren, Trapagara joango dira eta arratsaldean Bilbora itzuliko dira.

ELKARRIZKETA

JESUS ETXEBERRIA/BIDEO-ZALEA

“Kultur ekitaldiak grabatu izan ditut, batez ere”

**H**amalau urte daramatza Jesusek herriko ekitaldiak bideoan grabatzen. Orain, Udalak hala eskatuta, grabazio guztiak 60 DVDtan antolatu ditu. Udal Liburutegian jarriko dituzte DVD horiek, herritarren eskura.

**Gogoratzen duzu erosi zenuen lehendabiziko bideo kamera?**

Bai, horixe; nahikoa kamera ona zen, orduko formatuan. Super VHS kamera bat zen. Oraingoen alderatuta, noski, kalitate eskasagoko irudiak hartzen zituen. Hamar bat urtean ibili nintzen kamera harekin.

**Zergatik, zerk bultzatuta, erosi zenuen lehendabiziko kamera hura?**

Urte hartan, 1990. urtean, hain zuzen ere, gure semeak eta ilobak lehenengo jaunartzea egin behar zuten, eta horrexegatik erosi nuen. Aurretik nenbilen kamera bat erosteko gogoarekin, beti erakarri izan nau mundu horrek, baina, azkenean, jaunartzeagatik erosi nuen. Eta jaunartzean, hain

justu, egin nuen lehendabiziko grabazioa ere. Lehenengo izateko, nahiko lan txukuna atera zitzaidan.

**Hamalau urteotako grabazio guztiak 60 DVDtan batu dituzu. Lan handia egin duzu.**

Ikaragarriko lana eman dit, bai; iaz bukatzekoa nintzen eta, azkenean, aurtan bukatu dut. Tarteke, denbora libre neukanean, egiten nuen lana. Analogikotik digitalera aldatu behar izan dit grabazio guztiak; grabagailu berrira pasatu irudiak, handik ordenadorera sartu eta programa batekin moldaketak egin ondoren, DVDra pasatu. Lan handia izan dut.


**Zer ikusi ahal izango dugu DVD horietan?**

*“Gure semeak eta ilobak jaunartzea egin behar zutelako erosi nuen nire lehenengo kamera”*

Denetik pixka bat, baina, batez ere, kultur ekitaldiak eta horrelakoak. Herriko jaiak, auzoetakoak, Udalak antolatutako kultur ekitaldiak... Baina, baita herrian gertatu diren hainbat gauza ere. **Liburutegian jarriko dituzte DVDak, herritarrek maileguan har ditzaten. Ilusioa egingo dizu herritarrek zure lana ikusi ahal izateak, ezta?**

Bai, horixe; dena dela, politena da ikustea urtetik urtera zelako aldaketak egon diren. Jendea, kaleak... aldaketa handiak egon direla ikusten da bideoetan. Grabatzen ibiltzen naizenetan, jendea kexatu izan da eta ez grabatzeko eskatu, baina, denborarekin, balioa hartzen dute irudiek. **Anekdotak izango dituzu.**

Ez zait sekula ahaztuko erleak eskola aurrean egon zirenekoa. Tomas Kortabarria etorri zen erlea kentzera, eta ni han ibili nintzen grabatzen, gorputz guztia erlez beteta neukala. Orain pentsatzen jarrita, ez dut ulertzen zela ausartu nintzen hori egitera. Baina, nik beti pentsatzen dut: “Hau ez da berriro inoiz gertatuko eta grabatu egin behar dut”.



**Webgunea, ingelesez ere bai**

Antzuolako Udalak duen webgunea, ingelesez ere irakurri ahal izango da hemendik aurrera. Hasieran, euskaraz eta gazteleraz bakarrik zegoen. Orain, atzeritarrek ere gure herriaren gaineko informazioa jaso ahal izango dute Internet bidez. Asteroko berriak, baina, ez dituzte ingelesez jarriko, orrialde finkoak bakarrik egongo dira hizkuntza horretan.

Adaki enpresak prestatu du ingelesezko bertsioa, eta Bitez enpresak egin ditu itzulpen lanak./A.I.

**KIROLA**

**PARTIDUAK**

**FUTBOLA**

Urriak 16  
16:00: Antzuola-Ikasberri (Kadeteak)

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**

Urki 0 Antzuola 2 (Erregionalak)  
Urki 0 Antzuola 11 (Kadeteak)  
Antzuola 4 Sto. Tomas 1 (Gazteak)  
Almen 2 Antzuola 1 (Neskak)

**PILOTA**

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Olalde-Hernani (eskuz kad.) . . . 6-22

**LEKY-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

DEKORAZIOA

**ABAD**

PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko urriaren 15a / 218. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Hiru irlatxo berri ipiniko dituzte autoen abiadura murrizteko

IRATI AGIRREAZALDEGI


Udalak eskatuta Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru irlatxo egin eta semaforoak ipiniko ditu Artekalean, Elgetatik Eibarrerako bidean. Honen helburua autoen abiadura moteltzea da. Lanak noiz egingo dituzten oraindik erabaki gabe dago.

Salbador kalean, plaza inguruan eta tunelaren aldamenean hainbat semaforo ipini zituzten, iazko abuztuan, herri barruko ibilgailuen joan-etorria mantsotzeko asmoz.

Baina ustez ez da nahikoa eta Udalaren eskariz Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru irlatxo eta semaforo bat ipiniko ditu Artekalean hasi eta Eibarrerako bidera bitartean.

Lehenengo irlatxoa Artekalean egongo da, eliza ostean. Bertan semaforoa ere ipiniko dute, eta hemendik oinezkoek errepidea kiroldegi aldera gurutzatu ahal izango dute.

Bigarrena Artekalera azken etxeetatik gutxi gorabehera 40 metrora egingo dute. Horrela, Eibartik datozen autoek abiadura moteldu beharko dute.



Artekaletik Eibarrerantzako bidean hiru irlatxo ipiniko dituzte eta hauetako batean baita semaforoa ere.

Elgetatik Eibarrerako norabidean, San Rokeko parkearen amaieran kokatuko dute abiadura moteltzeko asmoz egingo duten hirugarren irlatxoa.

### BIDEA ESTUTU

Irlatxo hauek egitearen helburua bidea pixka bat estutzea da. Honela, autoek derrigorrez jaitsi beharko dute abiadura.

Irlatxoak eraikitzeke lanak noiz hasiko dituzten oraindik ez dute erabaki. Lehenago, ordea, bertako lurren jabeen baimena beharko du Udala.

## LABUR

### Herri batzarrerako deia egin du Elgeta Auzolanianek

Elgeta Auzolanian plataformak herritarrei herri batzarrerako deia egin die. Bilerak gaur, urriak 15, izango da liburutegian 20:00etan. Besteak beste udaletxeko gorabeheretaz eta egoera politikoaz jardungo dute plataformako ordezkariak eta bilerara gerturatzeko diren elgetarrek. Gai hauen gainean zerbait esateko dutenak gonbidatu nahi dituzte batzarrera.

### Erretiratuek irteera egingo dute Gaztainuzketara

Datorren egunean, hilaren 21ean, erretiratuek irteera egingo dute Gaztainuzketatik Landara joateko. Hala ere, ez dago ibilbide guztia egin beharrik eta norbere neurrira egokitu ahal izango da ibilaldia. Izena ematen dutenak 14:30ean Ozkarbi paretik autoetan irtengo dira eta itzulera 18:00ak inguruan izango da. Joan nahi dutenek Miren Villarri jakinarazi beharko diete urriaren 17a baino lehen.

## URAK

## Herri barruko ur hoditeria aldatu egingo dute aurki

I.A.

Atzo, eguna, uraren hornidura eten zuten goizean ur hoditerian aldatuta bat egiteko.

Elgeta hazten ari da pixkanaka: batetik, Torrealdeko etxeak eraikitzen dihardute eta bestetik, industrialdea gero eta handiagoa da. Horren ondorioz, ur gehiago behar da herriko beharrak asetzeko, eta behar horiei aurre egiteko oraingo hodiak ez

dira nahikoa. Beraz, hodi handiago bat ipini behar dute aurki ur depositutik Salbador kalera bitartean.

### ERABILTZAILEEN ONERAKO


Eguenean, ordea, ez zuten hodi berri hau ipini, gerora hodia jartzeko behin-behineko konponketa bat egin baizik.

Honela, hodi handia ipintzeko lanak hasten dituztenean herritarrek ez dute etxean iga-

rriko, ur horniduran mozketak gehiago izan ez daitezkeen egin baitzuten atzoko behin-behineko aldatuta.

Hodiari berari begiratuta apenas igarriko da lehengotik ezberdintasunik, baina erabiltzaileen onerako izango da gerora.

Izan ere, hodia handiagoa izanik ur gehiago helduko da depositutik herrira, eta banatzeko toki gehiago izan arren, denendako adina iritsiko da.



Hodi berriak 200 milimetroko diametroa du, eta 350 metroko luzera.

ELKARRIZKETA

JUAN VALLEJO/ALPINISTA

“Ez nuke jakingo mendira joan gabe bizitzen”

I.A.  
Juan Vallejo mendizale gas-teiztarrak mendiaren gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko du datorren eguenean Espaloian. Telebistarako lanak egin ditu, mendiko dokumentalak gertatuz, eta, besteak beste, horretaz jardun du.

Zer erakutsiko duzu Elgetako diapositiba emanaldian?

Annapurnara 1998an egindako espedizioari buruzko ikus-entzunezkoa izango da. Juanito Oizartzabalekin joan nintzen, eta berretzat oso berezia zen, 14 zortzimilakoetan azkena baitzuen. Horrekin batera, eskaladako beste irudi batzuk ere emango ditut. Nondik datorkizu zaletasuna?

Aita mendizalea izan da beti eta txikitatik mendira eta eskalatzera eraman izan nau, nigan ere zaletasuna sortuz. Gerora bizitzeko modu bihurtu da niretzat. Goi mailako alpinista zaren aldetik, zein da igotako mendien arten gustukoena?

Mendi guztiek dute bere zera, eta garaianak ez dira beti politenak. Esaterako, iaz Trango dorretan izan nintzen eta ederrak iru-

ditu zitzaizkidan. Edertasuna edozein menditan aurki daiteke.

“Berriz ez naiz itzuliko” esan duzu inoiz?

Ez, nahiz eta mendian egoera gogorrek bizi; ez dut sekula horrelakorik esan. Azken finean gu gara egoera eta arrisku horien bila goazenak, mendia ez da gertatzen zaigunaren erruduna. Egoerarik gogorrena 1996an pasa genuen, Sisha Pagman. Elur-jauzi bat gertatu eta espedizio-kide bat azpian harrapatuta hil zen. Mendiak zer eman dizu?

Gauza asko eman dizkit. Azken 15 urteotan gelditu gabe ari naiz mendira joaten, eta uste dut ez nukeela jakingo nire bizia mendira joan gabe bizitzen. Espedizio batean ez bada eskalatzen ibiltzen naiz inguruan.

Al filo de lo imposible telebista saioan hartu duzu parte.

Kasualitatez hasi nintzen programan. Proiektu bat aurkeztu genuen, proba ongi atera zen eta gerora beste hainbat lan egin ditut. Neketsua eta zaila da telebistako lana egitera joatea. Izan ere, dokumental bat egitera joaten gara, eta garrantzitsuagoa da irudi onak grabatzea tontorrera iristea baino.


Askok Juanito Oizartzabalen kide moduan ezagutzen zaitu.

Azken urte hauetan berarekin askotan joan izan naiz, eta bere izaerak itzala egiten digu ingurukooi, askotan medioen eraginez. Aurten K2 mendira ere berarekin joan naiz, eta oinetan izandako izozteengatik bera eta Pasaban izan dira protagonistak. Medioek jendea mito bihurtzen dute eta Juanito da horietako bat. Zortzimilako 14 mendiak egitea ez omen da zure helburua.


Igo ditut zortzimila metroko mendiak, hasieran banuelako mendi garaietara joateko gogoia, baina ideia hori baztertu egin dut, batez ere mendi hauen inguruan sortzen den giroagatik. Gero eta jende gehiago joaten da, espedizio komertzialak... Era horretako alpinismoak ez nau erakartzen. Nahiago dut bide alternati- boetatik mendira joan, eta zortzimilako guztiak egitekotan bide errazagoetatik joan beharko nuke.

Zein da hurrengo erronka?

Hilabete barru Patagoniara noa lagun batzuekin eskalatzera, eta beharbada datorren urtean espedizioen bat egingo dut, baina nora ez dut erabaki.



ARTXIBOA



Elgetarrak ere Danbakan

Danbaka musika lehiaketan izena emateko epea amaituta 43 partaidek aurkeztu dituzte lanak, tartean baita elgetarrek ere: Matxura eta Ostiada Oi! taldeek eta Izaskun Oianguren bakarlariak. Horietatik 20 aukeratu eta euren musika urriaren 22tik aurrera Espaloian egingo diren kontzertuetan entzun ahal izango da. Aukeraturakoen zerrenda ASTELEHENEKO GOIENKARIAN argitaratuko dute urriaren 17an. /I.A.

KIROLA

Pilota txapelketan 12 bikote izango dira

I.A.  
Federatu gabeko beteranoen pilota txapelketa antolatu dute aurtun bigarren aldiz, eta hamabi bikotek eman dute izena.

Oraindik data zehazteke bada ere urriaren hasiko dira partiduak eta Gabonetan, umeen pilota txapelketarekin batera jokatu dituzte finalak. Partiduen egutegia erabakitzeke parte-har-

tzaileekin bilera egingo dute antolatzaileek datorren astean, eta euren aurrez jakinaraziko diete non eta noiz izango den.

IAZKOAK ETA BERRIAK

Izena eman dute iazko txapeldu- nek, Arantzabal eta Telleriak, baita jokalaria berriek ere. Iazko- ek badute aurrera egiteko aukerarik, baina berriak ere fabori- toen artean daude.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale



**PROFESIONAL**  
*liberalen*  
**GIDA**

**GESTORIAK**

*EGUREN*

Iraila 3. 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

**AHOLKULARITZA**

**AIERDI AHOLKULARITZA**

Artekalea 1. 943 76 03 50

**TBG AHOLKULARITZA**

Matxiategi 36. 943 76 90 83

**ABOKATUAK**

**RAFAEL ARANBURU**

Irizar 5. 943 76 10 81

**MILAGROS LARRAÑAGA**

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

**BERNARDINO MAIZTEGI**

Irizar 5. 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**

Irizar 2. 943 76 03 35

**ARKITEKTU TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**

Zurradero 4. 943 76 53 53

**ARKITEKTUAK**

**JON MUNIATEGIANDIKOETXEA**

Barrenkalea 22. 687 73 75 67



# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a / 601. zenbakia



**ARGAZKI  
RALLYA**  
50 bat argazkilari  
lehian domekan

**EPAIKETA: HIRU URTEKO KARTZELA ZIGORRA PAULO ELKORORI/4 • FUTBOLA: BERGARA-MUTRIKU /6**

AZALA: MAITENA ARANA

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 15**  
ZABALA, Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 16**  
GUALLAR, San Antonio 5 ..... 943 76 11 05
- DOMEKA, 17**  
GUALLAR, San Antonio 5 ..... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 18**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 19**  
MOZOS, Iparragirre 2 ..... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 20**  
CAMACHO, Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74
- EGUENA, 21**  
ZABALA, Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 53 47 20
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaitzak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kirodegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK ..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |  |
|--|--|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak:<br>19:00. | <b>Labegarieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:00. |
| <b>Santa Marina</b><br>Zapatuak:<br>19:00.<br>Domekak:<br>13:00.               | <b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 08:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30.               |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>10:00, 11:30.   |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:00.  | Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:30.  |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 11:00.  | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.   |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.  | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   | Domekak: 12:00.  |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |  |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean.

**OHARRAK**

**1962AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1962an jaiotako enafaria urriaren 30ean, Erreki jatetxean. Izenematea (10 euro aurrez) bertan.

**1951N JAIOTAKOEN AFARIA**  
1951n jaiotako enafaria urriaren 30ean, Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro aurrez) Euskadiko Kutxan.

**1953AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1953an jaiotako enafaria azaroaren 13an, Txarrantxa jatetxean. Aurretik taldearen argazkia aterako dute Frontoian, 21:15ean.

Izenematea (15 euro aurrez) Txarrantxan, Kiñun edo ONCERen kioskoan (Tasio). Izena emateko epea azaroaren 11ra arte izango da zabalik.

**1933KOEN BAZKARIA**  
1933an jaiotako enafaria azaroaren 14an, Zumelaga jatetxean. Aurretik hildakoen aldeko meza izango da Santa Marinan, 13:00etan. Izenematea (6 euro aurrez) Intxorta tabernan.

**1947AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1947an jaiotako enafaria azaroaren 20an, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Joanetorria egiteko autobusa izango da. Izenematea Euskadiko Kutxan, azaroaren 13ra arte.

**JARDUNENAGENDA**

**TXAPLIGU TALDEA**  
Txapligu taldekoek (8-11 urte) eskulanak izango dituzte zapatuan, urriaren 16an. Domekan, berriz, antzararen jolasa egingo dute Arrizuriagan.

**TXISKRILABI TALDEA**  
Txiskrilabikoek zapatuan Udal Euskaltegian elkartuko dira, 16:00etan 12-14 urte bitartekoak eta 18:00etan 14-16 urte artekoak.

**URBANOENORDUTEGIA**


**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERGARAN**

**Eibar-Reala Agorrosinen, Julian Bernalen alde**

Reala eta Eibar futbol taldeen arteko partidua izan zen 1994ko urriaren 12an, Agorrosinen. Julian Bernal bergararrak, gaitasun baten eraginez, bi hankak galdu zituen, eta bere lagunak antolatu zuten partidua. 4.000 ikusle inguru izan ziren Agorrosinen. Realak 3-1 irabazi zion Eibari egun hartan.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Erreparu"*



JON IRAEGI

—Erreparo emoten dost jentiai ze edade daukan preguntetia.

**ASTEKOPELIKULAK**



**'LA TERMINAL'**

**ZUZENDARIAK:** STEVEN SPEILBERG. **AKTO-REAK:** TOM HANKS, CATHERINE ZETA-JONES.

**HARIA.** Urtetan Pariseko Charles de Gaulle aireportuan bizi den irandar baten istorioan oinarritu da Spielberg, ustez burokrasia kritikatzeko asmoz.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

**PUNTUAZIOA:** ● ● ● ● ●

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Astelehena, 11	<b>11°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Egubakoitza, 8	<b>28°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)</b>	<b>2,2 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztana, 6	17°C	13°C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 7	27°C	13°C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 8	28°C	12°C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 9	25°C	15°C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 10	21°C	13°C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 11	20°C	11°C	1,8 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 12	20°C	12°C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**'EL ABRAZO PARTIDO'**

**ZUZENDARIA:** DANIEL BURMAN. **AKTO-REAK:** DANIEL HENDLER, ADRIANA AIZENBERG, JORGE D'ELIA.

**HARIA.** Buenos Airesko merkataritza-gune bateko giro itxia jatorriz poloniar-judua izan eta bere nortasunaren bila dabilen gazte baten istorioaren kokalekua da. Filmak Zilarrezko Hartza irabazi zuen Berlinen.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, hileren 21ean, 20:00etan. Zinekluba.

**PUNTUAZIOA:** ● ● ● ● ●

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**OGIZUN**

koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

## ATREBENTZIAEZPADA/ Eguneroko bizimoduan euskara erabiltzen duzu?



**LIERNI LARRAÑAGA**  
33 urte

Bai, ahal dudan toki guztietan. Senarrarekin ez, ez dakielako, baina ea ikasten duen... Ikasketetan, eskolak euskaraz dira, eta nahiz eta aurrez gaztelaniaz ikasi, moldatzen naiz.




**JOSE LUIS MARZAN**  
61 urte

Beti ez, gehienetan gaztelaniaz hitz egiten dut. Etxean euskaraz jarduten dut, baina lagunekin, denekin ez. Umetan, eskolan, ez ziguten utzi euskara erabiltzen eta ohitura galdu genuen.



**XABIER MUXIKA**  
40 urte

Bai, baina nahi baino gutxiago. Erraztasun txikia daukat eta epaitegian lan egiten dudanez, han gaztelaniaz hitz egiten da batik bat. Hala ere, saiatzen naiz gero eta gehiago erabiltzen.



**XABIER LINAZISORO**  
77 urte

Bai, gaztelaniara oso gutxitan jotzen dut. Erdaldunak direla eta ulertzen ez dutela jakin arren beti egiten diot lehen hitza euskaraz jendeari. Gurea defendatu behar da.



**JOSE RAMON AIASTUI**  
36 urte


Bai, nire lana dela eta batzuetan gaztelaniaz egin behar izaten dut eta emaztearekin italieraz. Baina gainontzean euskara erabiltzen dut, etxean alabarekin batez ere.



**MAITE SUINAGA**  
66 urte

Umeekin asko erabiltzen dut, baita erosketak egitera noanean ere. Eskolan gaztelaniaz egiten genuenez, euskara egiteko ohitura galdu dugu, eta orain errazera jotzen dugu.

## TXALOKETATXISTUAK



**TXISTUAK APARKALEKU FALTA** Irakurle baten kexa dugu. Herrian diren obren eraginez, aparkaleku kopurua dezente murriztu dela eta hori gutxi balitz Ibargarain autoak aparkatzeko erabiltzen zen gune bat itxi egin dutela esan digu. Aspaldian orube handi bat dago erabiltzeko Ibargarain, eta Bidekurutzetara doan aldapan obretako trasteak gordetzeko beste gune bat egokitu dute, gidarien kalterako. /E.M.

## ETABARRUAN...

ASTEKO /4

**Sutea aste bukaeran**

Sute batek 50 hektarea inguru erre zituen asteburuan Antzuola eta Bergarako mendietan.

KIROLA /6

**Skate pista kiroldegian**

Bergarako Udalak Labegarietako kiroldegian skate pista jartzeko aurrekontua onartu du.

KULTURA /7

**Txapa Irratia: aurkezpena**

Txapa Irratiaren programazio berria aurkezteko jaialdia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean.

## ASTEKODATUA

# 500

**LIBURUXKA BANATU DITUZTE BERGARAN**


Idatziak. Etxejabeen komunitateetako agiriak liburuxkaren 500 ale banatu dituzte Bergaran. Etxejabeen komunitateetako agiriak zela egin azaltzen du *Idatziak* bildumako bigarren aleak.

## BESTEKEESANA

“Hamahiru urte nituenetik egon nintzen Realean eta ez zen erraza izan taldea uztea. Han, Donostian,

oso ondo tratatu ninduten, lehenbiziko egunetik taldea utzi nuen egunera arte. Realean emandako urteak oso onak izan ziren eta oroitzapen onak besterik ez daukat. Hala ere, beharrezkoa nuen aldaketa bat eta ez naiz damutzen Zaragoza etortzeagatik. Oso gustura nago Zaragozan eta gauzak nahiko ondo atera zaizkit orain arte. Zalantzarik gabe, arraroa egingo zait domekan nire taldekideak izan direnen kontra jokatzeko. Ez dakit hasieratik jokatzetik izango dudana, baina badaukat gogoa Realaren kontra jokatzeko. Partidu berezia izango da domekakoa”  
**AGUSTIN ARANTZABAL / Zaragoza futbol taldeko jokalaria 'Marca'/04-10-13**

## BERAIEKDIÑOÈ/ Iñigo Garitano



*Gezurrak eta larrua (gogorra)*

Ez naiz egia esateari balore sakratua ematen dioten horretarikoa. Errealitatea askotan oso gordina izan daiteke eta ezinbestekoa iruditzen zait krudeltasuna leuntzeko egi absolutua nolabait apaintzea. Elkarbizitza atseginagoa izaten laguntzen duelakoan nago.

Errealitateak momentuak bizitzea osasungarria da, entretenigarriek helburu hori dute nagusiki. Nork ez du gogoratzen Roberto Benignik zuzendutako *La vida es bella* filmean aitak semeari bizitzen ari ziren infernuko sufrimendua haur txikiari saihesteko etengabe asmatzen zituen egoera tragikomikoak. Zilegia iruditzen zait. Nork ez du gozatzen Woody Allenek bere komedietan aurkezten dituen pertsonaiak bizitzen dituzten egoerekin, bizimodu erosoarekin, New Yorkeko txoko erakargarrien erakusten dizkigun bitartean...

Baina, horrek egoera eta

jarrera kontzientek eta bilatutakoak badira, larrira gezurra arlo guztietan nagusitzea da, eta mundu honetan bizi garena ez ohartzea. Eta inpresioa daukat hori gertatzen ari dela gure artean. Hemen gezur galantak entzuten dihardugu egun baten bai eta hurrengoan ere. Eta okerrera horrekiko dugun tolerantzia da, inozoak izango bagina bezala botatzen diguten guztia ustez irentsiz.

**“Hemen gezur galantak entzuten dihardugu egun baten bai eta hurrengoan ere”**

Adibide asko ditugu. Azkena, Iraeko gerra pizteko saldu nahi

izan ziguten arrazoiak gezur hutsak baino ez zirela konfirmatu izana.

Inongo lotsarik gabe sarraski horren erantzuleak aitortu dute orain han ez zegoela ez arma arriskutsurik, ez eta Sadam Husseinen eta Al Qaedaaren arteko harremanik ere. Eta hori zabaldu denean ez da ezer gertatu.

Zalantza bakarra daukat: beren gezurrak sinesten bukatu ote dute?

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegi  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereziar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala


**EZBEHARRA/** Udalaren lursailak garbitzen ari zirela piztu zen sutea, zapatuan

# Antzuola eta Bergarako mendietan 50 hektarea inguru erre ditu suak

EDU MENDIBIL

Zapatutik astelehenera bitartean izandako sute batek 50 hektarea erre zituen Antzuola eta Bergarako mendietan. Gipuzkoako Suhiltzaileetako Mendi Saileko langileek eta boluntarioek jardun zuten sua kontrolatzeko lanetan. Ez zen kalte pertsonalik izan.

Bergarako Udalak kontratatutako enpresa bat garbiketa lanak egiten ziharduela piztu zen sutea zapatuan. Suteak Bergara eta Antzuolako mendietan eragin zituen kalteak, Iturrioste, Astoaga, Larrabaso eta Dantzaleku mendietan hain zuzen ere. Hainbat iturrien arabera, 50 hektarea inguru izan dira kaltetutakoak. Zapatutik astelehenera bitartean Gipuzkoako Suhiltzaileetako Mendi Saileko langileek eta hamabost boluntario inguruk jardun zuten sua itzaltzeko lanetan. Zorionez, ez zen kalte pertsonalik izan. Inguru horretan bost baserri daude (Etxague Azpikoa, Etxague gaineko, Elkorro, Elkorromiño eta Elkorobarrutia), baina ez zuten kalterik jasan.



Suteak Bergara eta Antzuolako mendietan eragin zituen kalteak.

Udalaren lursail batzuk garbitzen zirela, badirudi gaizki itzaltako su batek eragin zuela sutea. Haizeak ere lagundu zuen sutea zabaltzen. Orain dela pare bat aste ere suhiltzaileak etorri behar

izan ziren inguru horretara sua amatatzera. Udalaz gain, Oñatiko Arregi (Juanitosa) eta Ipiñarri dira erretako lursailen jabeak. Baso Elkarrekin egunotan egingo du kalteen balorazioa.

## Paulo Elkorori hiru urteko kartzela zigorra ezarri diote

E.M.

Paulo Elkorori hiru urteko kartzela zigorra ezarri zioten eguaztenean, beraren aurka Madrileko Auzitegi Nazionalan egindako epaiketan. Hasieran, fiskalak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu zuen Elkororendako, Araba Komandoarekin kolaboratzearen akusaziopean. Hala ere, ezinbesteko kolaborazioa egotzen bazioten hasieran, azkenean kolaborazio intentzioa leporatu zioten. Ondorioz, hiru urteko kartzela zigorra ezarri zioten eguaztenean. Jose Luis Elkorok,

Pauloren aitak, positiboki baloratu zuen erabakia, izan ere dagoeneko ia bi urteko zigorra bete baitu bere semeak.

Paulo Elkorro 2003ko urtarrilean atxilotu zuten Alemanian. Ondoren, Espainiako gobernua egindako estradizio eskaeraren bitartez, Madrilera ekarri zuten 2003ko azaroan. Alcala Meco espetxean egon da preso Paulo Elkorro. Askatasunak deituta, hogeitabat lagun izan ziren eguaztenean Madrilera, epaiketa jarraitzen. Gaur, egubakoitza, euskal presoekin elkarretaratzea izango da San Martin plazan, 20:00etan.



Paulo Elkororen aldeko elkarretaratzea izan zen eguaztenean San Martin plazan.



### San Pedro kalean zirkulazioa etenda

Euskaltel enpresak egiten diharduen lanen eraginez, San Pedro kalean zirkulazioa eten egin zuten eguaztenean. Aurreko egunotan Bidekurutzeta kalean izan dira lanean Euskalteko langileak, kableak sartzeko. Artekaleak itxita jarraitzen duenez, San Pedron lanei ekiteko aprobetxatu du Euskaltekek. Datoren egunotan zabalduko dute kalea berriz zirkulaziora. Hala ere, gidariek San Pedro kaletik Komeniora jo behar dute, eta Bidekurutzetatik gora edo Barrenkalerantz.

### LABUR

#### Sute txiki bat izan zen zapatuan Irizar kalean, 1. zenbakian

Zapatu arratsaldean Irizar kaleko lehen zenbakian izandako sutearen ondorioz, erailkineko bizilagun guztiak atxilotu zituzten etxetik Ertzaintzak. Badirudi bigarren solairuko etxebizitza baten garbigailuan izandako kortozirak sutea eragin zuela sutea. Ke jarria nabaria izan zen. Suhiltzaileen kamioi bi iritsi ziren sutearen lekura. Sutea piztu zen etxebizitzan kalte dezente izan zen. Beste etxebizitzetako bizilagunak euren etxetara bueltatu ahal izan ziren.

**IAHA!**

Antzuolako Hizkuntza Akademia

zabaldur berria ANTZUOLAN

ZATOZ ALEMANA IKASTERA!

Irakasle tituluak

Kalegoi 20  
Tel.: 943 75 21 11 • 649 318 385

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

**Ganbara**  
TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 55 75

**UREDERRA**  
ITURGINTZA


Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918



**IRRINTZI**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26



Liburuxkaren 500 ale banatu dituzte egunotan Bergaran.

**EUSKARA/** Etxejabeen komunitateetako agiriak zela idatzi azaltzen zaigu liburuxkan

## 'Idatziak' bildumaren bigarren alea kaleratu dute

AINZANE IRIZAR

Debagoieneko Mankomunitateak eta udaletako euskara zerbitzuek *Idatziak* bildumaren bigarren alea kaleratu dute, *Idatziak. Etxejabeen komunitateetako agiriak* izenburupean. 500 ale banatu dituzte atarrietako arduradunen artean.

Iaz kaleratu zuten Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek *Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak...* liburuxka. Orduko hartan, eguneroko idatziak euskaraz

zela egin azaltzen zitzairen herriarrei. Aurten, berriz, etxejabeen komunitateetako agiriak zela egin azaltzen duen liburuxka berria argitaratu dute. Mankomunitatearen laguntzarekin. 500 ale banatu dituzte Bergaran, komunitateetako arduradunen artean. Dena dela, liburuxka eskuratu nahi duten herritarrek udaletxeko Euskara Zerbitzura jo dezakete.

Bilduma honekin, helburua da euskara zabalitzen eta normalizatzen laguntzea; azken baten, euskara esparru guztietara zabal-

tzeta eta horretan dihardutenei laguntza eskaintzea.

### AKTAK, ZIURTAGIRIAK, OHARRAK...

Orain argitara eman duten liburuxkan, etxejabeen komunitateetan egin behar izaten diren dokumentuak euskaraz zela idatzi azaltzen zaigu; besteak beste, bilera deiak eta aktak, ziurtagiriak, errekerimenduak, balantze ekonomikoak, errotuluak eta araudiak zela idatzi azaltzen zaigu. Bukarera, hiztegi txiki bat ere badago. Liburuxkarekin batera, CD bat banatu dute.



## San Martingo ikasleak, Etxarri-Larraunen

San Martin Agirre ikastetxeko 3. eta 4. mailetako ikasleak Etxarri-Larrauneko Arotz-Enea barnetegian izan ziren iraileko azken astean. Ingurumenarekin lotutako ekintzak egiteko aukera izan zuten, eta, ikasteaz gain, ederto asko ibili ziren Nafarroa aldean.

## Miguel Altunako pabilioi berria azaro erdialderako bukatuko dute

E.M.

Miguel Altuna ikastetxean plastikoetara zuzenduta egiten diharduten pabilioi berria azaro erdialderako bukatuko dute. Tailerra datozen bost urteetan erabiliko da, Mayc inguruan ikastetxe berria egin bitartean.

Seminario aldera egiten diharduten pabilioi berria (16,8 m x 12,7 m) ikasleei zuzendutako plastikoko tailerra izango da. Miguel Altunako Iñaki Larrañaga zuzendariaren arabera, lanak azaro erdialdera bukatuko dituzte. Aurrekontua 80.000 euro da, eta pabilioia datozen bost urteotan erabiltzeko egin dute.

### ESKAITZA PARTZIALA

Bestalde, 21 urtetik gorako adina izan eta gutxienez bi urteko

## LABUR

### Windows eta Microsoft Word hasiera ikastaroa, Udaleko Enplegu Sailaren eskutik

Bergarako Udalak, Enplegu Sailaren bitartez, informatika ikastaroa eskaintzen du. Ikastaroa 50 ordukoa da eta Windows eta Microsoft Word hasiera jorratuko dira. Era berean, ikastaroaren hasieran hamar orduko mekanografia arloa eskainiko da.

Ikastaroa azaroaren 2tik abenduaren 3ra bitartean izango da, 15:00etatik 17:00etara. Matrikulak 50 euro balio du. Izenematea urriaren 26ra bitartean izango da zabalik Udaletxeko enplegu sailan, 09:00etatik 13:00etara. Argibide gehiago 943 77 91 24 telefono zenbakian.

### Antzuola eta Bergarako erretiratuen kultur hamabostaldia hasiko da astelehenean

Antzuola eta Bergarako erretiratuek antolatutako kultur hamabostaldia hasiko da astelehenean, urriaren 18an. Hamabostaldia iragarriko duen kartela aurkeztuko dute Bergarako erretiratuen egoitzan, 19:00etan. Era berean, eskulanak, margoak eta artisau lanak jarriko dituzte ikusgai. Martitzenean, hilaren 19an, Ane Bustinduy Prospektiker enpresako zuzendariak biztanleriaren zahartzearen ondorioak izango ditu aztergai Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Bestalde, urriaren 27an San Millan de la Cogollara joateko irteera antolatu dute erretiratuek.

### Gurasoei zuzendutako euskara ikastaroa antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuek


*Gehixago eta hobeto* programaren barruan, gurasoei zuzendutako euskara ikastaroa antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuek. Ahozko euskara izango da ikastaroaren oinarria, gurasoei euren hizkuntza-akatsak zuzentzen laguntzeko.

Ordu eta erdiko bost saio izango dira, azaroan hasita. Izenematea martitzenera arte, urriaren 19ra arte izango da zabalik. Argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan, 943 77 91 66 telefono zenbakian.

### Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik

Ekonomi jardueren gaineko zergaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errekariguarekin kobratuko da. Ordainagiria helbideratu gabe dituzten zergadunek ondorengo egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko behar den agiria.

Aipatutako ordainadiria jaso ez duzuenok Udalera jo beharko duzue. Argibideak 943 77 91 64 telefono zenbakian.



Plastikoko tailerra jarriko dute egiten diharduten pabilioi berrian.

lan esperientzia dutenei lanbide heziketa ikastea eskaintzen die Miguel Altunak. Bakarkako moduluen bidez egiteko aukera

dago. Izenematea urriaren 20ra arte izango da zabalik. Interesatuak ikastetxeko idazkaritzara jo dezakete argibide eske.

FUTBOLA

# Preferente mailako taldeak azken postuan jarraitzen du, oraindik partidurik irabazteke

Igor Gordobil eta Andoni Azkargortaren taldeak Mutriku hartuko du zapatuan, Agorrosinen, 16:30ean

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak ezinbestekoa du bihar, Mutrikuren aurka, garaipena lortzea. Igor Gordobilek zuzentzen duen taldea sailkapeneko azken tokian dago, bi punturekin. Mahoneroek ez dute oraindik partidurik irabazi.

Ligako bosgarren jardunaldi jokatuta ondoren, Bergarak ez du oraindik garaipenik lortu eta sailkapeneko azken tokian da, bi punturekin. Inork gutxi espero zuen halako liga hasiera kaskarra. Bihar, Mutrikuren aurka, garaipena lortzea behar beharrezkoa da Igor Gordobilek zuzentzen duen taldearendako.

Zapatuan, Ordizian, 2-1 galdu zuen Bergarak. Ordiziarrek aurreratu ziren markagailuan, 50. minutuan. Ondoren, Ekainek banakoa egin zuen 62. minutuan baina handik gutxira Ordiziak egin zuen 2-1ekoa. Partidu amaieretan ez dabilta fin Gordobilen eta Azkargortaren mutilak. Estatistikak ere kezkatzeko modukoak dira: Aloña Mendirekin batera, gol gehien jaso duen taldea da Bergara: 12 gol egin dizkiote. Aldi berean, golak egiteko



Preferente mailako taldeak ligako lehen garaipena lortu nahi du bihar bere zaleen aurrean, Agorrosinen.

orduan punteria gutxi azaldu dute bergararrek: jokaturako bost partiduetan bost gol besterik ez dituzte sartu. Anaitasunak baka-

rrik dauka marka eskasagoa, lau golekin. Bergararren moduan, Zarautzek eta Aretxabaletak ere bosna gol egin dituzte.

Bergarak bihar bisitari izan duen Mutriku taldeak sendo dihardu ligan. Azken jardunaldian, etxean, 4-2 irabazi zion Oiar-

tzuni eta sailkapeneko bosgarren tokian daude, 10 punturekin. Sailkapeneko goialdeko postuetan lehia handia dago, lehen zazpi taldeak puntu bakar bateko aldearekin baitaude. Mutrikuarrek bi partidu galdu dituzte orain arte. Etxetik kanpoko azken partiduan, Donostian, 3-0 galdu zuten UPV/EHU taldearen kontra.

## KADETE MAILAN, BERGARA-REALA

Bestalde, ohorezko kadete mailako Bergarako taldeak Realaren aurka neurtuko ditu indarrak zapatuan Ipintzan, eguerdiko 12:00etan. Javi Oregi eta Carlos Gorrotxategiren mutilek ez dute partidu erraza izango, Realak talde indartsua dauka eta. Bergararrek bi partidu berdindu eta beste bi galdu egin dituzte orain arte.

Era berean, zapatuan, senior mailako nesken taldeak Almenen aurka jokatuko du Ipintzan, 18:45ean.

## BI PARTIDU DOMEKA GOIZEAN

Domekan, berriz, beste bi partidu jokatuko dira Ipintzan: futbol 8an, Bergara eta Antzuolako nesken taldeak izango dira aurrez aurre, 10:00etan. Ondoren, bigarren kadete mailan, Bergarak Zestoa izango du bisitari, 11:45ean hasita.

## Kiroldegian skate pista jartzeko aurrekontua onartu du udalbatzak

E.M.

Udalbatzak Labegaraietan skate pista bat jartzeko gastu proposamena onartu zuen joan den astean. Aurrekontua 44.750 euro da, eta kiroldegia- ren kanpoaldeko berdegunean kokatuko dute pista.

Udaberri aldera tenis pista ondoren zegoen anfiteatroa bota egin zuten. Hasiara baten, skate pista haren lekuan jartzea pentsatu zuten, baina hainbat auzotarren kezak tarteko, kiroldegia- ren kanpoaldeko berdegunean jarriko dute patinean ibiltzeko pista. Udalak oraindik ez du zehaztu lanak noiz hasiko diren, baina urte bukaera alderako skate pista erabiltzeko moduan izango dela aurreratu dute.

Izan ere, skate pista gaztetxo eta gazteen aspaldiko eskaera izan da. Udalak 12-16 urteko gaztetxo beharrak aztertu zituen iaz eta gaztetxoek, besteak beste, patinarekin jolasean aritzeko pista bat aldarrikatu zuten. Iaz buru-



Patinarekin ibiltzeko pista kiroldegiko berdegunean jarriko dute.

tutako ikerketan, gaztetxoek kolektiboak, musika taldeendako lokalak, beraiei zuzendutako kultura eskaintza eta gaztetxoak elkartzeko lokalen beharra azpimarratu zituzten.

Patinean ibiltzen diren gazteek ez dute aspaldi horretarako leku aproposik izan, Matxiategin zegoen pista kendu zutenetik, hain zuzen ere. Pista berriak hutsune hori beteko du.

## ESKUBALOIA

### Gazte mailako nesken eta bigarren senior mailako taldearen partiduak aste bukaeran

Bergara KEko gazte mailako nesken taldeak Zarautz taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, kiroldegian, 16:15ean.

Bestalde, senior mailako bigarren taldeak Arrasate izango du bisitari domekan Labegaraietan, 12:15ean.

## IGERIKETA EGOKITUA

### Gutxituei zuzendutako igeriketa eskolak Agorrosingo igerilekuan, egubakoitzetan

Kirol Zerbitzuak igeriketa egokituko ikastaroa eskaintzen du. Aipaturako ikastaroa gutxituei zuzendutakoa da.

Bergaran eskolak egubakoitzetan izango dira, arratsaldez. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Komando-Calaveras. Fac  
10:30: Fac-Egurre. Komando

17:00: A Ze Flaxa-Arrano. KMP  
18:00: Komando-KMP. Pagomendi  
19:00: Mongatxurak-Pagomendi. De Resa.  
20:00: De Resaka-Cosa Nostra. Mongatx.

#### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Niu Tim-Txipiron. Ganbara  
10:30: Canalejas-Ganbara. Txipiron  
16:00: SDTNT-Belengua. A Ze Flaxa

#### DOMEKAN, KANPOAN

18:00: Bayer-Fit automocion. Kalaveras  
17:00: Kalaveras-All Blacks. Pirulotarrak  
18:00: PDS-Pirulotarrak. All Blacks

ELKARRIZKETA

BENITO CANTERO/POL-POL ARGAZKI TALDEKO KIDEA

# "Argazki digitalak izan daitezke agian datorren urteko berrikuntza"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Pol-Pol argazki taldeak antolatuta argazki rallya izango da domekan. Edozein zalek hartu ahal izango du parte, bergararrek zein kanpokoek. Antolakuntzan diharduen Benito Canterok eman digu honen berri.

**Zein helbururekin antolatzen duzue argazki rallya?**

Rallyaren helburua argazkiak atereaz goiza pasatzeaz gain, argazki-zaleak diren lagunekin egotea ere bada, batzuk urtean behin baino ez baititugu ikusten. Proiektzioa ere oso polita izaten da, eta ikasteko balio du, bakoitzak argazkiak komentatzeko aukera izaten du eta kritikak interesgarriak izaten dira.

**Bergarako rallyan jende askok hartzen du parte?**

Bergarako beste rally batzuekin alderatuta jendetsua izaten da. Gehienetan parte-hartzaileen batez bestekoa 25 lagunekoa izaten da, eta hemen 45 inguru elkar-tzen gara, hauetatik 15 Bergarako bertakoak.

**Edonork har dezake parte?**

Bai, edozeinek eta nahi duen kamerarekin. Hori bai, argazki digitalekin oraindik ez gara hasi, baina baliteke datorren urteko berrikuntza hori izatea.

**Nolakoa da rallya?**

Goizean goiz argazkien gaiak zozketatzen ditugu eta gero gai horien arabera argazkiak atera behar dituzte zaleek. Goizean argazkiak atera eta gero argazki bobina elkartekooi eman behar digute. Guk errebelatu eta eurei bueltatzen dizkiegu sei onenak aukera ditzaten. Ondoren, epaimahaikoek ikusi eta irabazleak zein diren adostu ostean, proiektzioa egiten da aurkeztutako lan guztiekin eta gero sariak banatu.

**Pol-Pol argazki taldeak antolatu du rallya. Zenbat lagun zaudete orain taldean?**

Taldean 25 gara, baina aste-roko lanean sei edo zazpi.



*"Aurkeztutako lanak proiektatu egiten dira, eta jendearen komentarioetatik asko ikasten da"*

**Rallya antolatzeaz gain, zein beste ekintza egiten duzue?**

Lokalean bi laborategi analogiko, laborategi digitala (ordenagailua eta eskanerra), proiektio gela eta egoteko beste gela bat dauzkagu. Astelehenetan gure lanak eraman eta zaleon artean

*"Argazkilaritza digitala indarrean dago, eta laborategi klasikoak ez du zentzu handirik"*

komentatzen ditugu. Argazkiak errebelatzeko aukera ere badago, baina guk ordenagailu bidez egiten dugu gehiena. Gaur egun, laborategi klasiko bat edukitzeak ez dauka zentzu handirik, argazkilaritza digitala baita indarrean dagoena.

KULTURAPILULAK

**Punk-rock musika bihar gauean gaztetxean Antibioticos eta The Capaces taldeen eskutik**

Bihar, urriak 16, zapatua, The Capaces eta Antibioticos taldeen kontzertua izango da 22:30ean gaztetxean. Antibioticos Arnedoko taldeak punk-rock musika egiten du eta kaleratzearen lehen lana aurkeztuko dute. The Capaces Bartzelonako boskoteak *Born to punk* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak hiru euro balio du.

**Kaliforniako Paparoach eta Phoenixko Chronic Future taldeak gaur Jam aretoan**

Papa Roach kaliforniarren hip-hop, hardcore eta groove-funk doinuak entzun ahal izango dira gaur gauean Jam aretoan. *Getting away with Murder* biraren baitan etorriko dira Bergarara. Eurekin Chronic Future Phoenixko taldeak ere jardungo du. Ateak 20:00etan zabalduko dituzte eta sarrerak 22 euro balio du.

**Udal Musika Bandaren kontzertua izango da domeka eguerdian Udal Pilotalekuan**

Domekan kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak pilotalekuan 12:30ean. Bost pieza joko dituzte: Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Ibarratik Tolosara* euskal martxa; Bizeten *El pescador de perlas* operako obertura; Manzinniren *Pink panter* soinu banda; Caballeroren *Gigantes y cabezudos* zarzuelako zati bat eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek moldatutako *Tirolische melodien*.



**Txapa Irratiaren programazio aurkezpena**

Aste honetan jarriko da abian Txapa Irratiko programazio berria, hogeigarrena, hain zuzen ere. 27 irratsaio entzuteko aukera izango da 97.25 frekuentzian. Musika, kontrainformazioa, kultura alternatiboa... eta halako gaiak landuko dituzte. Programazioa aurkezteko gaur gauean jaia egingo dute gaztetxean. 22:30ean Azkaiter Pelox-en kontzertua izango da. //A.

**GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES**  
BERGARA  
607 349 043

**Grua zerbitzua**  
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Mujika gozotegia**

Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**  
943 76 10 34

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 **BERGARA**

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. **BERGARA**  
943 76 14 95



Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58



## Etixerako ederrena, *Zanguitun*

### deco-tex ZANGUITU alfonbrak

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoia
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

Herri lagunak 4. BERGARA  
Tel.: 943 76 08 69

### ZANGUITU margoak

Irala z/g BERGARA  
Tel.: 943 76 19 54

### IRU margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea\*
- Sintasola\*
- Mocketak\*
- Paper pintatuak

\* Salmenta eta etxean ipintzea.





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 37. alia

## IEPA LAGUNOK!

Zer moduz pasatu dozue aste motz hau? Ondo aprobetxatu dozue lau opor egunak?

Ni, egixa esan, primeran ibilli naiz, mendira jende asko etorri da eta eurekin berba egiñez asko entrenitu naiz. Hala be Apatxiko beste ale bat egiñteko denporia be izan dot. la zuen gustokua dan!!



## URREZKO ARAUAK

- Haizia egoten dalako.
- Ez dozu ezer egitten eta!

- ~~Porke haizia dago.~~
- ~~Si ez dozu ezer egitten!~~



## ZERGAITTIK?

Partaide guztien artian gidarixa aukeratuko da. Honek galdera bat pentsatu eta beste jokalarixei adieraziko dotse. Adibidez: "Zergaittik jausten dira hostuak zuhaitzetatik udazkenian?". Gaiñontzeko jokalarixek banan-banan zentzuzko erantzun bat esan biharko dabe.

Adibidez: "haizia egitten dabelako". Norbait zer esan ez dakixela gelditzen danian bukatuko da jokua. Ondoren bera izango da jokua gidatuko dabena.



## IGARKIZUNAK

la igarkizun hauek asmatzen dittuzuen! Ezetz igarri!

- Igoko luke arbolarik handiena eta ezin pasa errekarik txikiena.

- Ahorik ez du, hankarik ez du, eta txistuka dihardu eta korrika aurpegian aritzen zaizu joka baiña zuk ezin ikusi iñola.

ERANTZUNAK: inurria, haizia



## HOROSKOPUA



### capricornio

Ezetz jakin orain dala zenbat urte erai-ki zeben zuk ikasten dozun ikastetxia? Hasi zaittez liburu gehixago irakurtzen.



### libra

Zer dala eta uste dozu bestiak baiño gauza gutxiago egin zeinkiela? Izan zure buruarekin konfidantza haundixagua.



### aquarius

Dagoeneko nekatu zara eskolako lanak egitteaz? Animo! Oraindik ikasturtia hasi besterik ez da egin eta!



### leo

Zaindu egizu zure osasuna, ze bestela gaixorik jartzeko arriskua dozu.



### piscis

la ikasturte honetarako jarri dozun erronkia gaintzen dozun! Zure esku dago!



### scorpio

Ez zaittez horren alperra izan! Egunian egunekua egitteak mesede egingo dotzu.



### cancer

Nekatuta zarela? Bai zera! Ez dozu ezer egitten eta!



### virgo

Astebukaeran ez dakizula zer egin? Horrenbeste maitte dittuzun lagun horiek asteburu zoragarri bat antolatu dabe.



### sagittario

Parte hartu egizu Apatxiren hurrengo lehiaketan. Iñork baiño irabazteko aukera gehixago dittuzu.



### aries

Zergaittik esaten dittuzu horrenbeste gizur? Pinotxori moduan, sudurra luzatuko jatzu.



### geminis

Zer dala eta horrenbeste negar? Herriko errekak be gaiñezka egingo dabe.



### tauro

Ez zaittez zeurekoia izan, ikasi egizu bestiekin egoten ze bestela, bakarrik sentittuko zara.

BONOFOTOA




MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Zein da San Juango baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

- |   |   |   |
|---|---|---|
| <p><b>1.</b><br/>Idatziak bildumaren bigarren alea bereziki zeini zuzenduta dago?</p> <p>A/ Etxejabeei.<br/>B/ Kirolariei.<br/>C/ Politikariei.</p> | <p><b>2.</b><br/>Non jarriko du Udalak gazteei zuzendutako skate pista?</p> <p>A/ Matxiategin.<br/>B/ Labegariaietan.<br/>C/ Agorrosinen.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zenbat irratsaio izango dira Txapa Irratiaren programazio berrian?</p> <p>A/ 14.<br/>B/ 27.<br/>C/ 32.</p> |
|---|---|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRANTZU LETErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Irantzu! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: San Pedro kalean. / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ian tomate txikitua

400 g. 3x1

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXIBOIA

Urdangarin kalea

BERGARAROSPETSUAK

Eladio Urdangarin

KOLDO PEREIRA

L aureaga dorretzeko oinordekoa, 1860ko urriaren 5ean jaio zen, Bergaran. Anita Irizarrekin ezkondu zen, eta alargun gelditu ondoren, beste alargun batekin: Maria Urkizu Zurbanorekin. Eladio Urdangarin abokatu ezaguna eta Granadako Auzitegiko burua izan zen, bai eta Bilbokoa ere. Auzitegi horretan eszedentzia hartu zuen kargu handiago batean jarduteko. Bilboko Abokatuen Elkargoan omenaldia egin zioten euren begirunea eta miresmena adierazteko.

Era berean, 1918. urtean Auzitegi Goreneko fiskal buruordea eta Maroko eta kolonietako batzordeko agregatua zen. Erlijio-uste sendoko gizona zen, eta bihotz-bihotzean zuen bere jaioterrria. Edonon zegoela ere, urtero itzultzen zen Bergarara Aste Santuko prozesioetan parte hartzeko. Oxirondoko Santa Marina parrokiako kabildoak gidari-makila (*gixoia*) gordetzen zion "aste santuko kale birak" gidatzeko. Horixe izan zen Oxirondoko Santa Marinako eliztarrekin izan zuen konpromiso sakratuetako bat. 1930eko ekainaren 12an hil zen.

*Abokatu ezaguna,  
Granadako Auzitegiko  
burua izan zen, bai eta  
Bilbokoa ere*



POL-POL  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ETXEERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

# Firingaluak taldekoak Arizkunen

**F**iringaluak taldekoak dira argazkian agertzen direnak. Sokatira proba batean parte hartzeko elkar-tu ziren eta geroztik izen horrekin hainbat ekintza egin zuten, baita kamisetak atera ere. Inoiz futbol partiduren bat jokatu zutela ere jakin dugu, nahiz eta batzuek baloiari ematen ez asmatu. Lagun koadrila askotarikoak izan arren, guztiek osatzen zuten talde bat eta urtean lau aldiz elkartzen ziren: udazkenean, gaztaina erre egunaren bueltan; San Valentin egunean (buztana eta San Blas opila izaten zituzten afaritarako); irteera bat egiten zuten urtean behin; eta batzar orokorra egun osokoa izaten zen, Inozente egunean Lapurdi baserrian.

Erretratua Nafarroara egindako irteerakoa da. Arizkunen atera zuten, eta bidean ahari batekin komeriak izan zituztela iritsi da gure belarrietara.

Hona hemen erretratuan agertzen direnak. Goian, ezkerretik eskumara: Pello Izagirre, Jon Agirreazaldegia, Roberto Basauri *Lapurdi*, Juan Mari Sarasua *Jefia*, Patxi Montiel, Jesus Mari Berraondo *Plinio* eta Jorge Iturricastillo.

Beheko ilaran: Jose Mari Alberdi, Goio Sarasua, Jose Agustin Beretxinaga, Ramon Ugalde, Iñaki Berraondo, Esteban Sarasketa eta Jose Antonio Egizabal *Sagastitxu*.



**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Jon Agirreazaldegia



## GAZTELU BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

## ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

## EDEL TAPIZ DENDA

*Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



## ARRI

Industri hornidura  
*Latigilloak*

Telleria 2  
BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko urriaren 15a / 218. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


## Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu berri du udalbatzarrak

AINTZANE IRIZAR

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Antzuolako Udalarendako egin duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu egin du udalbatzarrak, urriko osoko bilkuran. Parte hartu zuten zinegotzi guztiek aldeko botoa eman zioten proposamenari.**

Orain dela urte eta erdi, 2003ko apirilean, hain zuzen ere, sartu zen Antzuolako Udala UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. Mankomunitate horretan sartzen diren udalei, euskararen erabilera normalizatzeko plana egiten die UEMAK. Antzuolaren kasuan ere horixe egin dute, eta urriko osoko bilkuran onartu zuen Udalak plana.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana Udalerako egiten da; horrela, helburua lortzeko hiru ildo nagusi zehaztu dira: herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza bezala erabiltzea bermatzea; euskara beste administrazioekiko harremanetarako hizkuntza izatea bermatzea eta administrazio bärneko lan hizkuntza euskara izatea bermatzea.



Udalan euskararen erabilera bultzatzea da planaren helburua.

Hiru helburu horiek betetzeko hainbat irizpide zehazten ditu planak; hala nola, herrian zabaldu beharreko agiriak euskaraz argitaratzea, langileak etengabe prestatzea euskarari dagokionez, kontratatutako enpresek euska-

razko zerbitzua emango dutela ziurtatzea, beste erakundeekiko harremanetan euskarazko dokumentazioa erabiltzea eta hiri-gintzako baimenak euskaraz ematea, besteak beste.

Oraingo hau, baina, ez da Uda-

lak abian jartzen duen lehenengo plana. 1989an Euskararen Udalen Ordenantza onartu zuten. Geroago, 1995ean, hain zuzen ere, Bergarako Udalarekin batera, AEBE normalizazio plana garatu zuten, hiru urtean zehar.

## HERRITARREN HITZA / Mikel Larrea • Udal langilea

### Une historikoak

Une historikoak bizi ditugu Euskal Herriaren etorkizunerako". Gure politikoen ahotik etengabe entzuten dugun esaldia da. Baina egia esanda, asko kostatzen zaigu gertaera sozio-politikoak gure herriaren etorkizunean duten inplikazioa nabaritzea.

Agian, irailaren 11ko edo martxoaren 11ko atentatuek, edota Irakeko gerrak, munduaren norabidea aldatu dute, baina gutariko askoren bizimodu leku txikiko hautestontzi batek blindatuta edo babestuta jarraitzen du, non bakarrik eguneroko arazo txikiak duten

lekua: hilaren amaierara heltzeak, osasun arazoek, bikote harremanek, familia arazoek edo baita Errealaren egoerak ere.

Ez dago bestelako buruhaustetarako lekuri; gure mundu txikia arazo pertsonalez inguratuta dago, eta honek gizartearen eragina duten benetako arazozen pertzepzioa eragozten du.

Dena den, gure arazo txikien zergatiak aztertze-



**"Proposamenak ulertu eta iritzia emateko gaitasuna izan behar dugu"**

beharrezko adimen gaitasuna eskuratu behar dugu, eta kontzientek izan behar gara arazo horietako askoren jatorria gizartearen osasun politikoan dagoela.

Estutzen gaituen kristalezko hautestontzia puskatu egin behar dugu, eta eguneroko arazozen gainetik zer dagoen ikusi.

Era horretan, arazoak konpontzeko bidean partehartzaile aktiboak izan gaitzeko.

Benetako gizarte demokratikoa lortzea nahi baldin badugu, horretarako konpromisoa hartu behar dugu. Alderdi politikoak, gobernuak edota lehendakariak aurkeztutako proposamen ezberdinak ulertu eta iritzia emateko gaitasun pertsonala izan beharko genuke, aurkezten duenaren sinpatiak edo antipatiak guregan izan dezakeen eragina alde batera utzita.

Horrela bakarrik sinistu eta ulertu ditzakegu, benetan une edo garai historikoak bizi ditugula Euskal Herriaren etorkizunerako.

## LABUR

### Ping-pong txapelketa Gaztegunean

Gaztegunean ping-pong mahaia jarri berri dute, eta txapelketa antolatu nahi dute. Asteburu honetan egongo da izena emateko aukera. Bestalde, oraingo zapaturako iragarrita zegoen hanka-paloen ikastaroa atzeratu egin dute la adierazi digute Gazteguneko arduradunek.

### Hurtzaindegirako izena emateko epea luzatu dute

Aurreko asteko egubakoitzean, hilak 8, bukatu zen hurtzaindegirako izena emateko epea. Ume gutxi aurrematrikulatu dira, eta oraindik bada- go lekua. Hori ikusita, Udaleko arduradunek erabaki dute aurrematrikulazio epea luzatzea. Udaletxean duzue izena emateko aukera.

### 'Idatziak' liburuxka eskuragarri dago Antzuolan ere

*Idatziak. Etxejabeen komunitateetako agiriak* liburuxka kaleratu berri dute Mankomunitateak eta udaletako euskara zerbitzuek. Antzuolan, atari bakoitzeko ale bat banatuko dute; dena dela, liburuxka gehiago nahi izanez gero, udaletxeko bulegoetara jo dezakezue bila.

### Erretiratuen irteerarako izena emateko aukera

Gaur, egubakoitza, erretiratuen irteerarako izena emateko azkeneko eguna duzue, 18:00etatik 20:30era egongo dira txartelak salgai, erretiratuen elkartean, 24 euroren truke. Hilaren 21ean, eguena, Bilbora egingo dute irteera; ondoren, Trapagara joango dira eta arratsaldean Bilbora itzuliko dira.

ELKARRIZKETA

JESUS ETXEBERRIA/BIDEO-ZALEA

“Kultur ekitaldiak grabatu izan ditut, batez ere”

Al.  
Hamalau urte daramatza Jesusek herriko ekitaldiak bideoan grabatzen. Orain, Udalak hala eskatuta, grabazio guztiak 60 DVDtan antolatu ditu. Udal Liburutegian jarriko dituzte DVD horiek, herritarren eskura.

Gogoratzen duzu erosi zenuen lehendabiziko bideo kamera?

Bai, horixe; nahikoa kamera ona zen, orduko formatuan. Super VHS kamera bat zen. Oraingoe-kin alderatuta, noski, kalitate eskasagoko irudiak hartzen zituen. Hamar bat urtean ibili nintzen kamera harekin.

Zergatik, zerk bultzatuta, erosi zenuen lehendabiziko kamera hura?

Urte hartan, 1990. urtean, hain zuzen ere, gure semeak eta ilobak lehenengo jaunartzea egin behar zuten, eta horrexegatik erosi nuen. Aurretik nenbilen kamera bat erosteko gogoarekin, beti erakarri izan nau mundu horrek, baina, azkenean, jaunartzeagatik erosi nuen. Eta jaunartzean, hain

justu, egin nuen lehendabiziko grabazioa ere. Lehenengoa izateko, nahiko lan txukuna ateratziz zaidan.

Hamalau urteotako grabazio guztiak 60 DVDtan batu dituzu. Lan handia egin duzu.

Ikaragarriko lana eman dit, bai; iaz bukatzekoa nintzen eta, azkenean, aurtun bukatu dut. Tarte-ka, denbora librean neukanean, egiten nuen lana. Analogikotik digitalera aldatu behar izan ditut grabazio guztiak; grabagailu berrira pasatu irudiak, handik ordenadorera sartu eta programa batekin moldaketak egin ondoren, DVDra pasatu. Lan handia izan dut.


Zer ikusi ahal izango dugu DVD horietan?

“Gure semeak eta ilobak jaunartzea egin behar zutelako erosi nuen nire lehenengo kamera”

Denetik pixka bat, baina, batez ere, kultur ekitaldiak eta horrelakoak. Herriko jaiak, auzoetakoak, Udalak antolatutako kultur ekitaldiak... Baina, baita herrian gertatu diren hainbat gauza ere. Liburutegian jarriko dituzte DVDak, herritarrek maileguan har ditzaten. Ilusioa egingo dizu herritarrek zure lana ikusi ahal izateak, ezta?

Bai, horixe; dena dela, politena da ikustea urtetik urtera zelako aldaketak egon diren. Jendea, kaleak... aldaketa handiak egon direla ikusten da bideoetan. Grabatzen ibiltzen naizenetan, jendea kexatu izan da eta ez grabatzeko eskatu, baina, denborarekin, balioa hartzen dute irudiek. Anekdotak izango dituzu.

Ez zait sekula ahaztuko erleak eskola aurrean egon zirenekoa. Tomas Kortabarria etorri zen erlea kentzera, eta ni han ibili nintzen grabatzen, gorputz guztia erlez beteta neukala. Orain pentsatzen jarrita, ez dut ulertzen zela ausartu nintzen hori egitera. Baina, nik beti pentsatzen dut: “Hau ez da berriro inoiz gertatuko eta grabatu egin behar dut”.



Webgunea, ingelesez ere bai

Antzuolako Udalak duen webgunea, ingelesez ere irakurri ahal izango da hemendik aurrera. Hasieran, euskaraz eta gazteleraz bakarrik zegoen. Orain, atzeritarrek ere gure herriaren gaineko informazioa jaso ahal izango dute Internet bidez. Asteroko berriak, baina, ez dituzte ingelesez jarriko, orrialde finkoak bakarrik egongo dira hizkuntza horretan.

Adaki enpresak prestatu du ingelesezko bertsioa, eta Bitez enpresak egin ditu itzulpen lanak./A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urriak 16  
16:00: Antzuola-Ikasberri (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Urki 0 Antzuola 2 (Erregionalak)  
Urki 0 Antzuola 11 (Kadeteak)  
Antzuola 4 Sto. Tomas 1 (Gazteak)  
Almen 2 Antzuola 1 (Neskak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Olalde-Hernani (eskuz kad.) . . . 6-22

**LEKY-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

DEKORAZIOA

**ABAD**

PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko urriaren 15a / 218. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Hiru irlatxo berri ipiniko dituzte autoen abiadura murrizteko

IRATI AGIRREAZALDEGI


Udalak eskatuta Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru irlatxo egin eta semaforoak ipiniko ditu Artekalean, Elgetatik Eibarrerako bidean. Honen helburua autoen abiadura moteltzea da. Lanak noiz egingo dituzten oraindik erabaki gabe dago.

Salbador kalean, plaza inguruan eta tunelaren aldamenean hainbat semaforo ipini zituzten, iazko abuztuan, herri barruko ibilgailuen joan-etorria mantsotzeko asmoz.

Baina ustez ez da nahikoa eta Udalaren eskariz Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru irlatxo eta semaforo bat ipiniko ditu Artekalean hasi eta Eibarrerako bide- bitartean.

Lehenengo irlatxoa Artekalean egongo da, eliza ostean. Bertan semaforoa ere ipiniko dute, eta hemendik oinezkoek errepidea kiroldegi aldera gurutzatu ahal izango dute.

Bigarrena Artekaleko azken etxeetatik gutxi gorabehera 40 metrora egingo dute. Horrela, Eibartik datozen autoek abiadura moteldu beharko dute.



Artekaletik Eibarrerantzako bidean hiru irlatxo ipiniko dituzte eta hauetako batean baita semaforoa ere.

Elgetatik Eibarrerako norabidean, San Rokeko parkearen amaieran kokatuko dute abiadura moteltzeko asmoz egingo duten hirugarren irlatxoa.

### BIDEA ESTUTU

Irlatxo hauek egitearen helburua bidea pixka bat estutzea da. Honela, autoek derrigorrez jaitsi beharko dute abiadura.

Irlatxoak eraikitzeke lanak noiz hasiko dituzten oraindik ez dute erabaki. Lehenago, ordea, bertako lurren jabeen baimena beharko du Udalak.

## LABUR

### Herri batzarrerako deia egin du Elgeta Auzolaneanek

Elgeta Auzolanean plataformak herritarrei herri batzarrerako deia egin die. Bilerak gaur, urriak 15, izango da liburategian 20:00etan. Besteak beste udaletzeko gorabeheretaz eta egoera politikoaz jardungo dute plataformako ordezkariak eta bilerara gerturatzaren diren elgetarrek. Gai hauen gainean zerbait esateko dutenak gonbidatu nahi dituzte batzarrera.

### Erretiratuek irteera egingo dute Gaztainuzketara

Datorren egunean, hilaren 21ean, erretiratuek irteera egingo dute Gaztainuzketatik Landara joateko. Hala ere, ez dago ibilbide guztia egin beharrik eta norbere neurri-erregulazioa ahal izango da ibilaldia. Izena ematen dutenak 14:30ean Ozkarbi paretik autoetan irteera dira eta itzulerara 18:00ak inguruan izango da. Joan nahi dutenek Miren Villarri jakinarazi beharko diete urriaren 17a baino lehen.

## URAK

### Herri barruko ur hoditeria aldatu egingo dute aurki

I.A.

Atzo, eguna, uraren hornidura eten zuten goizean ur hoditerian aldaketa bat egiteko.

Elgeta hazten ari da pixkanaka: batetik, Torrealdeko etxeak eraikitzen dihardute eta bestetik, industrialdea gero eta handiagoa da. Horren ondorioz, ur gehiago behar da herriko beharrak asetzeko, eta behar horiei aurre egiteko oraingo hodiak ez

dira nahikoa. Beraz, hodi handiago bat ipini behar dute aurki ur depositutik Salbador kalera bitartean.

### ERABILTZAILEEN ONERAKO


Eguenean, ordea, ez zuten hodi berri hau ipini, gerora hodia jartzeko behin-behineko konponketa bat egin baizik.

Honela, hodi handia ipintzeko lanak hasten dituztenean herritarrek ez dute etxean iga-

rriko, ur horniduran mozketak gehiago izan ez daitezzen egin baitzuten atzoko behin-behineko aldaketa.

Hodiari berari begiratuta apenas igarriko da lehengotik ezberdintasunik, baina erabiltzaileen onerako izango da gerora.

Izan ere, hodia handiagoa izanik ur gehiago helduko da depositutik herrira, eta banatzeko toki gehiago izan arren, denendako adina iritsiko da.



Hodi berriak 200 milimetroko diametroa du, eta 350 metroko luzera.

ELKARRIZKETA

JUAN VALLEJO/ALPINISTA

“Ez nuke jakingo mendira joan gabe bizitzen”

I.A.  
Juan Vallejo mendizale gas-teiztarrak mendiaren gai-neko ikus-entzunezkoa eskainiko du datorren eguenean Espaloian. Telebista-rako lanak egin ditu, mendiko dokumentalak gertatuz, eta, besteak beste, horretaz jardun du.

Zer erakutsiko duzu Elgetako diapositiba emanaldian?

Annapurnara 1998an eginda-ko espedizioari buruzko ikus-entzunezkoa izango da. Juanito Oartzabalekin joan nintzen, eta beretzat oso berezia zen, 14 zortzimilakoetan azkena baitzuen. Horrekin batera, eskaladako beste irudi batzuk ere emango ditut. Nondik datorkizu zaletasuna?

Aita mendizalea izan da beti eta txikitatik mendira eta eska-latzera eraman izan nau, nigan ere zaletasuna sortuz. Gerora bizi-tzeko modu bihurtu da niretzat. Goi mailako alpinista zaren aldetik, zein da igotako men-dien arten gustukoena?

Mendi guztiak dute bere zera, eta garaienak ez dira beti polite-nak. Esaterako, iaz Trango dorre-etan izan nintzen eta ederrak iru-

ditu zitzaizkidan. Edertasuna edo-zein menditan aurki daiteke.

“Berriz ez naiz itzuliko” esan duzu inoiz?

Ez, nahiz eta mendian egoera gogorrek bizi, ez dut sekula horre-lakorik esan. Azken finean gu gara egoera eta arrisku horien bila goazenak, mendia ez da gerta-zen zaigunaren erruduna. Ego-erarik gogorrena 1996an pasa genuen, Sisha Pagman. Elur-jau-zi bat gertatu eta espedizio-kide bat azpian harrapatuta hil zen.

Mendiak zer eman dizu?

Gauza asko eman dizkit. Azken 15 urteotan gelditu gabe ari naiz mendira joaten, eta uste dut ez nukeela jakingo nire bizia mendira joan gabe bizitzen. Espe-dizio batean ez bada eskalatzen ibiltzen naiz inguruan.

Al filo de lo imposible telebis-ta saioan hartu duzu parte.

Kasualitatez hasi nintzen pro-graman. Proiektu bat aurkeztu genuen, proba ongi atera zen eta gerora beste hainbat lan egin ditut. Neketsua eta zaila da tele-bistako lana egitera joatea. Izan ere, dokumental bat egitera joa-ten gara, eta garrantzitsuagoa da irudi onak grabatzea tontorrera iristea baino.


Askok Juanito Oartzabalen kide moduan ezagutzen zaitu.

Azken urte hauetan berarekin askotan joan izan naiz, eta bere izaerak itzala egiten digu ingu-rukooi, askotan medioen eragi-nez. Aurten K2 mendira ere bera-rekin joan naiz, eta oinetan izan-dako izozteengatik bera eta Pasaban izan dira protagonistak. Medioek jendea mito bihurtzen dute eta Juanito da horietako bat. Zortzimilako 14 mendiak egi-tea ez omen da zure helburua.

Igo ditut zortzimila metroko mendiak, hasieran banuelako mendi garaietara joateko gogoa, baina ideia hori baztertu egin dut, batez ere mendi hauen ingu-ruan sortzen den giroagatik. Gero eta jende gehiago joaten da, espe-dizio komertzialak... Era horre-tako alpinismoak ez nau erakar-tzen. Nahiago dut bide alternati-boetatik mendira joan, eta zortzimilako guztiak egitekotan bide errazagoetatik joan beharko nuke.

Zein da hurrengo erronka?

Hilabete barru Patagoniara noa lagun batzuekin eskalatzera, eta beharbada datorren urtean espedizioen bat egingo dut, bai-na nora ez dut erabaki.



ARTXIBOA



Elgetarrak ere Danbakan

Danbaka musika lehiaketan izena emateko epea amaitu-ta 43 partaidek aurkeztu dituz-te lanak, tartean baita elge-tarrek ere: Matxura eta Ostia-da Oi! taldeek eta Izaskun Oianguren bakarlariak. Horietatik 20 aukeratu eta euren musika urriaren 22tik aurrera Espaloian egingo diren kontzertuetan entzun ahal izango da. Aukeratu-ta-koen zerrenda ASTELEHENEKO GOIENKARIAN argitaratuko dute urriaren 17an. /I.A.

KIROLA

Pilota txapelketan 12 bikote izango dira

I.A.

Federatu gabeko veteranoen pilo-ta txapelketa antolatu dute aur-ten bigarren aldiz, eta hamabi bikotek eman dute izena.

Oraindik data zehazteke bada-go ere urrian hasiko dira parti-duak eta Gabonetan, umeen pilo-ta txapelketarekin batera joka-tuko dituzte finalak. Partiduen egutegia erabakitzeke parte-har-

tzaileekin bilera egingo dute anto-latzaileek datorren astean, eta euren aurrez jakinaraziko diete non eta noiz izango den.

IAZKOAK ETA BERRIAK

Izena eman dute iazko txapeldu-nek, Arantzabal eta Telleriak, baita jokalarri berriek ere. Iazko-ek badute aurrera egiteko auke-rarik, baina berriak ere fabri-toen artean daude.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale



**PROFESIONAL**  
*liberalen*  
**GIDA**

**GESTORIAK**

*EGUREN*

Iraila 3. 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

**AHOLKULARITZA**

**AIERDI AHOLKULARITZA**

Artekalea 1. 943 76 03 50

**TBG AHOLKULARITZA**

Matxiategi 36. 943 76 90 83

**ABOKATUAK**

**RAFAEL ARANBURU**

Irizar 5. 943 76 10 81

**MILAGROS LARRAÑAGA**

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

**BERNARDINO MAIZTEGI**

Irizar 5. 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**

Irizar 2. 943 76 03 35

**ARKITEKTU TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**

Zurradero 4. 943 76 53 53

**ARKITEKTUAK**

**JON MUNIATEGIANDIKOETXEA**

Barrenkalea 22. 687 73 75 67